429 zenbakia. 2000ko azaroaren 10a
JARDUN ELKARTEA

# Berrigara

Bergarako astekaria



# Eustaquio Aguirreolea

## Bergarako argazkigintzaren lehen urratsak

Autoerretratua, 1887 ingurukoa

RENAULT




Clio sport 172cv
e m o z i o a
Scénic RX4 dCi



MECA
BERGARA
Erakusketa eta tailerra
Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68

# Artea, Humanitateak eta Astronomia

## Ikastaroak eta hitzaldiak



*Artea*

### Artea ikusten, ulertzen eta interpretatzen jakin

Ikastaroaren funtsa, XX. mendeko arteari buruzko hausnarketa eta azterketa teorikoa egitea izango litzateke; hau da, XX. mendeko pintura, eskultura, collagea... eta erabili izan diren sistema eragile eta formulazioak ulertzea. Kurtsoan zehar, hainbat lan eta mugimenduren maila eta funtzio komunikatiboa hobeto ulertzeko, artisten testu, filmina, liburu eta gure inguruko erakusketen gaineko informazioa bilduko dugu.
Hau guztia, sintesi formularen hautaketa kontzienteak nahitaez ondorio semantikoak dakartzala eta, horrela, artelana eta errealitatearen (bizitzaren) arteko elkarrizketa sortzen dela ulertzeko, artea, beste hizkuntza, disziplina eta praktika sozialekin erlazionatzen den esperientzia estetikoa baita.

**Ikastaroaren planteamendua:** teoria eta praktikarekin osatuko da. Hilean behin irteera bat egingo da.
**Irakaslea:** Oihana Garitano.
**Ikastaroaren hasiera:** azaroaren 28a, asteartea



*Humaniteak*

### Autoestimua, pentsamendu positiboa eta giza komunikazioa

Hitzaldi hauek gai guztiok hobeto eta sakonago lantzeko aukera ematen dute. Gainera, hemen ikasitakoa bikotearekin eta harreman afektiboekin lotutako arazoetarako irtenbide praktikoa izan daiteke.
**Hasiera eguna:** azaroaren 29a, asteazkena.
**Hizlaria:** Txema Ibrain eta bere laguntzaileak. Ibrain jauna, gizarte langilea, pedagogoa, psikologoa, eta psikoterapeuta humanista da.
**Metodologia:** Aktiboa, parte hartzailea, irekia eta dinamikoa.

*Astronomia*

### Izarrei eta planetei begira. Hitzaldia

Gai hauetaz mintzatuko da Bittor Rodriguez:
Astronomiaren Historia.
Zerura begira nola orientatu: planisferioa eta konstelazioak.
Zer egin dezakegu zeruan? Izarrak baino askoz gehiago.
Zerura noiz, nola eta zerekin begiratu. Begiak, prismatikoak, teleskopioa.
**Eguna:** azaroaren 30a, osteguna.
**Hizlaria:** Bittor Rodriguez, Aranzadi Zientzi Elkarteko Astronomia Saileko kidea eta astronomiazalea.
**Irteera praktikoa** konstelazioak ikusteko (eguraldiaren arabera, egunean bertan edo beste egunen batean).





Antolatzailea: **Ana Orgaz**
Koldo Eleizalde, 2-behea. Telefonoa: 943 76 35 99
Informazioa jasotzeko eta izena emateko lekua:
**Etxepare liburu denda**



# "Aurtxoa I"

**Elena Laka** / Abokatua

Gure umea ikastolara eramaten hasi naizela eta, egun hauetan sarritan akordatu naiz ni ikastolan hasi nintzeneko garaiaz. Hogeita hamar urte betetzen dira aurten Eibarren Guardia Zibilaren kuartelaren pare-parean zegoen lokal txiki hartara joaten hasi nintzela.

Amak "Merceria Mary" auzoko dendan erositako amantala hartuta joan ginen neba eta biok ikastolara. Berrogei neska-mutiko inguru geunden terrazo beltzeko zorua zuen lokal txiki batean (orduan ez zitzaidan hain txikia iruditzen!). Hiru eta lau urtekoak nahastuta, andereño Estherrekin. Nahiz eta ez dudan gogoratzen inork ezer esan zigunik, ume guztiok genekien andereñoaren neba kartzelan zegoela. Urte batzuk pasa arte, baina, ez genuen haren izenik jakin: Mario Onaindia.

Auzoan umeekin jolasean jabetu nintzen nire ikastola ez zela besteen "eskola" edo "kolejioak" bezalakoa: lagunek kontatzen zidatenez, euren gelan ez zegoen mutilik; irakurtzen ikasten ari ziren "cartilla" esaten zioten liburutxo batekin; aulki eta mahai bana zuten. Niri ez zidaten irakurtzen irakasten (eta baneukan gogoa!); egun osoa marrazkiak egiten, abesten eta jolasean pasatzen genuela iruditzen zitzaidan, eta gure gelan ez geneukan ez mahairik ez aulkirik. Ohol handi bana, lurrean jartzeko, eta ohol txiki bana, altzoan hartuta gainean marrazkiak egiteko.

Irakurtzen hurrengo ikasturtean ikasi genuen: "Aurtxoa I" lehenengo, "a-ma, ma-mo-a", eta "Aurtxoa II" gero, "ollarraren gandorra gorria izaten da". Gustura ikusiko nituzke berriro liburuxka haiek! Baina, orduan ere, desberdin: irakurtzen jakin bai, baina euskaraz, ezin aitak domekero erosten zigun "Capitán Trueno" edo "Jabato" irakurri! Urteak pasa ahala ohitu egin ginen eskola desberdin batera gindoazela entzuten: hasteko, ez geneukan "eskola bat", "lokalak" baizik; ez geneukan liburuhrik, multikopistaz egindako fitxa txar batzuk baizik; eta ez gintuzten kopiak egitera zigortzen. Hura zen guk ezagutzen genuena, guretzako normala, baina orain jabetzen naiz zein arraroa iruditzen zitzaien nire auzokoei, nire gurasoak bezala beraien seme-alabendako ikasketak nahi zituzten inmigrante auzoko langile haiei, eskola hartatik ezer probetxuzkorik aterako ez zela sinestuta zeuden.

*"Nire ikastola ez zen besteen 'eskola' edo 'kolejioak' bezalakoa: euren gelan ez zegoen mutilik; irakurtzen ikasten ari ziren "cartilla" esaten zioten liburutxo batekin; aulki eta mahai bana zuten"*

Joan zen egunean mojekin ikasitako eta alaba ikastetxe erlijioso batean daukan lagun batek komentatzen zidan umeek modu berri bat erabiltzen dutela kenketak ikasteko. "Dicen batekos, hamarrekos, dibujan cuadritos en las restas. Es un metodo nuevo". Tira, guk duela hogeitazazpi urte ikasi genuen bezala!

Gero irakurtzen dugu arazo guztien ama hezkuntza-sistema dela, ikastoletan ematen den hezkuntza, beharrezko dela historia bateratu bat irakastea, ikastoletan bonba-autoak ipintzen irakasten dutela. Horrelakoetan nostalgiazko ikastola hartaz gogoratzen naiz, eta bururatzen zaidan gauza bakarra da zoratuta edo estrategia politiko bati oso ondo lotuta daudela.<

## barruan



**Iñigo Arregi**
Bergarako EHEko kidea

***"Euskararen plan estrategikoa gauzatzeko herria girotu egin behar dugu"***

8.



**Ione Lekuona**
Ortzadar lentzeria

***"Serixia naiz, baiña, era berian, sinpatikia; etxian, genixo txarra be badaukat"***

15.



**Gaizka De Miguel**
Txirrindularia

***"Mendiko bizikleta jaitsieretan arriskua kontrolatzen jakin behar da"***

21.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

**gazte informazioa**

**BEKAK**

**Kanpo merkataritza.**
Ekonomi Zientzietan, Enpresaritzan, Zuzenbidean edo Ingeniaritzan titulazioa baloratuko dira. Kanpo merkataritzako praktikarako11 beka, Espainiako esportatzaileen egoitzan. Epea: azaroak 22.

**IKASTAROAK**

**Langabetuentzako lanerako prestakuntza-ikastaroak Donostian.**
Donostiako Udala. Arraindegia, harategia, okindegi-gozotegia, kontabilitatea eta fiskalitatea, marketing eta komunikazioko idazkaria, etb. Epea: Abenduak 31.

**SARIAK**

**Kartel-lehiaketa.**
Irungo Argoiak Kultur Elkartea. Gaiak emakumeari buruzkoa izan behar du. Teknika librea. Formatu bertikala eta 50 zm x 35 zm.ko neurriko lanak. Ondoko testua izan beharko du, euskaraz nahiz gaztelaniaz: "X. Kartel lehiaketa Argoiak Kultur Elkartea Martxoa 2001". Epea: abenduak 20.

**Literatur-lehiaketa.**
Irungo Argoiak Kultur Elkartea. Espezialitateak: Poesia, Ipuina eta nobela. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitakoak Titular bakoitzeko hiru lan bakarrik onartuko dira. Epea: abenduak 20.

**JARDUERAK**

**San Martin Feria 2000.**
Zegamako Udala. Ardo dastatze ikastaroa, Pilota, Urbia eta Azkorriko artzainen arteko 2. gazta lehiaketa. Herri mailako abere eta ganaduen lehiaketa. Epea: Azaroak 6-12.

**LAN-ESKAINTZAK**

**Ingurumena.**
Debagoieneko Mankomunitatea. Goimailako, H.E. 4. Ingurumen Zerbitzuko arduradun plaza bat. Epea: azaroak 13.

**Gizarte laguntzailea.**
Bilboko Udala. Gizarte-laguntzaile titulazioa. Euskara. Epea: azaroak 14.

**KARNETAK**

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.**

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Ma**

*Pa* ere bai.
Muxua.
*– Ane, bota ma amandriai.*

*Pa emon, pa eiñ, ma emon, ma eiñ* ere bai. Muxu eman.
*– Ala, pa emon da lotara.*




## Tenperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

| San Juan auzoan | Tenperatura maximoa | Tenperatura minimoa | Euria |
|---|---|---|---|
| **Azaroak 2, eguena** | 16 °C | 11 °C | 9,6 l/m² |
| **Azaroak 3, eguakitza** | 12 °C | 5 °C | 1,7 l/m² |
| **Azaroak 4, zapatua** | 15 °C | 3 °C | 1,1 l/m² |
| **Azaroak 5, domeka** | 16 °C | 5 °C | 34,6 l/m² |
| **Azaroak 6, astelehena** | 15 °C | 7 °C | 6,2 l/m² |
| **Azaroak 7, martitzena** | 12 °C | 6 °C | - l/m² |
| **Azaroak 8, eguaztena** | 12 °C | 5 °C | 1,6 l/m² |

## Farmaziak

**Eguakitza 10:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Zapatua 11:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Domeka 12:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Astelehena 13:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Martitzena 14:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Eguaztena 15:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Eguena 16:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

## Ogia

**Domeka 12:** Konde.

## Zozketak

**Amnistiaren aldeko Batzordeen zozketa.**
Autokarabana: 041.061 zenbakia.
Irabazleak dei dezala 94 424 92 41 telefonora azaroaren 30a baino lehen.
**Euskal Herrian Euskaraz-en zozketa.**
Tunezera bidaia: 24.908 zenbakia.

## mezak

**Santa Marina**
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
**San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
**Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
**Elosu**
Domekak: 10:00.
**Ubera**
Domekak: 10:30.
**San Juan**
Domekak: 11:00.
**Basalgo**
Domekak: 13:00.
**San Prudentzio**
Domekak: 10:30.
**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.
**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
**Angiozar**
Domekak: 11:00.
Eguakitzak: 19:00.
**Monja Zaharrak**
Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
**Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
**Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
**Uzarraga**
Domekak: 10:00.

**URTE-MEZAK**
**Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
**San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Bergarako udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Antzuolako udaltzaingoa | 943 76 62 46 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Mendaroko ospitalea | 943 03 28 00 |
| Zumarragako ospitalea | 943 03 50 00 |
| Arantzazuko osp. (Donostia) | 943 00 70 00 |
| Santiago ospit. (Gasteiz) | 945 00 76 00 |
| Txagorritxu osp. (Gasteiz) | 945 00 70 00 |
| Basurtoko ospitalea | 94 400 60 00 |
| Galdakaoko ospitalea | 94 400 70 00 |
| Gurutzetako ospitalea | 94 600 60 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| Odol emaleak | 943 76 16 24 |
| Itxaropenaren telefonoa | 943 45 80 05 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Bergarako udaletxea | 943 77 91 00 |
| Antzuolako udaletxea | 943 76 62 46 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Kiroldegia | 943 76 56 41 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **ABERIAK / ISTRIPUAK** | |
| Argindarra. Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Grua. Ibai | 608 67 68 21 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Idolaz | 943 76 65 08 |
| Jubilatuen Etxea. Bergara | 943 76 21 40 |
| Antzuolako jubilatuen elk. | 943 76 62 71 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |
| Bedelkar | 943 76 04 68 |
| Akulu AEK | 943 76 05 18 |
| Udal euskaltegia | 943 76 44 53 |
| Bergarako notaritza | 943 76 10 73 |

# zorion agurrak



**Hodei Lenisoro**
15ean 14 urte.
Urte askotarako!
Etxeko denok.



**Julio Zabaleta**
11n 42 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor.



**Maika Jaso**
10ean 12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta lagunak.



**Mikel Larrañaga**
13an 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Koro Iraegi**
11n 42 urte.
Urte askotarako!
Auskalo zein.



**Ainhoa Aspiazu**
12an 7 urte.
Urte askotarako eta muxu bat!
Etxekoak.



**Asier Arriola**
13an 7 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Inazio.



**Unai Zubizarreta**
11n 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Markel Manuel**
10ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Maitane Mujika**
13an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mikel Najera**
10ean urtebete.
Urte askotarako!
Andoni, aita eta ama.



**Ane Cabrera**
11n 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Idoia Herran**
12an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean, **azaroaren 17tik 23ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

*URTEURRENA*

## Felisa Iturrino Intxausti



Lehen urteurreneko meza domekan, azaroak 12, goizeko 11:30ean, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*ESKER ONA*

## Jesus Unamuno Larrea



Bergaran hil zen 2000ko azaroaren 7an, 73 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

## hildakoak

**BERGARA**
**Balentin Agirrebeña Gantxegi**
Azaroak 2, 70 urte
**Antonio Blanco Simoes**
Azaroak 4, 48 urte
**Lucio Gonzalez-Rico Gonzalez**
Azaroak 5, 80 urte
**Isaac Larrañaga Orozko**
Azaroak 6, 72 urte
**Jesus Unamuno Larrea**
Azaroak 7, 73 urte

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Jon Imanol Elgarresta Manzano**
Urriak 26
**Josu De Pedro Lazkano**
Urriak 28
**Oier Jauregi Aranburu**
Urriak 31

## urbanoa

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**Geralekuak:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**Geralekuak:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak;* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaieg.:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunak:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.

**Bergara-Bilbo.** *Laneg.:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaieg.:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

# ANTZERKIA

▶ **"Radio rara"**, In & Out taldearekin, gaur, eguakitza, 23:00etan Elorrioko Ateneoan.

# MUSIKA

▶ **Gallon Drunk** eta **Mermaid** taldeak gaur, eguakitza, 22:00etan, Jamen.

▶ **XI. Jazz Blues jaialdia** Elorrioko Arriola aretoan: eguenean, hilak 16, Teddy Baxter, 23:00etan. Eguakitzean, ordu eta toki berean, Baldo Martinez Grupo.

# ERAKUSKETAK

▶ **Eustaquio Aguirreolea** pintore eta argazkilariaren erakusketa udaletxeko udalbatza aretoan, domekara arte.

▶ **Manos Unidas** erakundearen erakusketa Kultura Etxean, domekara arte.

▶ **Miguel Okina**ren pintura erakusketa, domekara arte, Durangoko Ezkurdi aretoan.

▶ **Marilu Unzurrunzaga**ren margoak Eskoriatzako Kultura Aretoan, hilaren 19ra arte.

# LEHIAKETAK

▶ **Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa**. 500.000 pezetako sari bakarra. Lanak emateko epea abenduaren 11n bukatuko da. 943 76 62 46.

# IKASTAROAK

▶ **Grabatuen hastapen ikastaroa** Beartek antolatuta. Plaza mugatuak. Argibide gehiagorako: 948 21 26 85 edo 659 87 45 17 (Dani).

▶ **Aromaterapia ikastaroa** azaroaren 14tik abenduaren 14ra. Izen-ematea eta argibideak Jardunen. Telefonoa: 943 76 08 19.

▶ **Umeen jolasak eta kantak,** ume txikien gurasoentzako ikastaroa azaroaren bukaeratik otsail hasierara bitartean. Ordutegia taldearen araberakoa izango da. Izen-ematea herriko ikastetxeetan azaroaren 17ra arte zabalik. Plaza mugatuak izango dira.

KONTZERTUA

## *Link Wray*

- Bihar, zapatua, 22:00etan
- Jam aretoan
- Sarrera: 4.000 pezeta. 4.500 pezeta leihatilan.

Madrilen eta Bartzelonan izan ondoren, Bloody Mary jaialdiaren 10. urteurrena ospatzeko, Link Wray, Deke Deckerson & The Ecco-Fonics, The Phantom Surfers eta The Church Keys taldeak izango ditugu bihar Bergarako Jam aretoan. Zalantzarik gabe, jaialdiko izar nagusia Link Wray 72 urteko gitarrista beteranoa izango da. Gaur egungo musikari askok Wrayk euren musikan izan duen eragina aitortu izan dute eta gitarrarekin maisua dela erakutsi du behin eta berriz. Biharko kontzertuan, "Barbed wire" bere azken diskoko abestiak aurkeztuko ditu. Era berean, gaur egun Danimarkan bizi den estatubatuarrak bere errepertorioko kantu ezagunenak joko ditu. Besteak beste, "Pulp fiction" edo "Desperado" filmetako soinu bandetan bere kantuak erabili izan dira azken urteetan. Adituen arabera bere musikarekin gozatzeko aukera paregabea da biharkoa.

Bestalde, Deke Dickersonek ere ibilbide luzea bete du dagoeneko rock munduan. Untamed Youth edo The Go-Nuts taldeetako kide ohiak kolaboratzaile dituela etorriko da Bergarara eta The Ecco-Fonics taldekideekin batera "Number one hit records" izenburuko diskoan azaldutako indarra erakutsi nahi izango dute. The Phantom Surfers taldeari dagokionez, Europa aldera etortzen diren lehen aldia da eta kritikaren arabera entzuleak pizteko orduan ez dute parekorik. Biharko kontzertuan euren abestietako batzuen gaztelaniazko bertsioak joko dituzte. Azkenik, The Church Keys New Yorkeko talde "ganberroak" osatuko du kartela. 1990eko hamarkadako A-Bones edo The Raunch Hands taldeen oinordekoak ei dira.



Link Wray.

# SAN MARTZIAL EGUNA **BERTSOTAN**

**Bertso-trama**

**Ainhoa Agirreazaldegi**
**Andoni Egaña**
**Sebastian Lizaso**
**Unai Iturriaga**

Gai-jartzailea:
**Karlos Aizpurua**
Trikitilaria:
**Iker Goenaga**

Azaroaren 18an, zapatua, 22:30ean
Zabalotegi aretoan
Sarrerak ohiko tokietan, 1.000 pezetan.

*ANTOLATZAILEA*
Jardun

*LAGUNTZAILEAK*
*Avenida taberna*
*Bergarako Udala*
*Gipuzkoako Foru Aldundia*
*Euskadiko Kutxa*
*K-3 inprimategia*

# DEIAK

**Gazte lokala**ren aldeko mugimenduak eguakitzero, 19:00etan, kartzela zaharrean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

**Odol ateraldia** datorren eguaztenean, azaroak 15, 18:30ean, Seminarioko lokalean.

**Hitzaldia:** "Nekazaritza ekologikoa eta produktu transgenikoen arteko desberdintasunak", Biolurreko kideen eskutik datorren eguakitzean, hilak 17, 19:30ean, Elgetako Espaloia aretoan. Maya ingurumen taldeak antolatuta.

# KINTADAK

**1938**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 18an Pertxa elkartean. Izen-ematea azaroaren 15a baino lehen 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edo 943 76 18 64 (Migel Lazkano) telefonoetan.

**1950**ean jaiotakoen afaria azaroaren 18an, Txuringon. Izen-ematea (7.500 pezeta) Kutxan, azaroaren 11ra arte. Osintxura joateko autobusa izango da 21:00etan, Frontoian.

**1945**ean jaiotakoen afaria azaroaren 18an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik, hildakoen oroimenezko meza izango da, 19:00etan. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kutxan, azaroaren 14a baino lehen.

**1946**an jaiotakoen afaria azaroaren 18an, Tartufon. Bertara joateko autobusa izango da, 21:00etan, Santa Marinan. Izen-ematea Tartufon bertan. 943 76 35 51.

**1943**an jaiotakoen afaria azaroaren 18an, Antxoni jatetxean, 21:00etan. Izen-ematea azaroaren 15era arte Maher, Fernandez ohial dendan edo Antxoni jatetxean.

**1944**an jaiotakoen afaria azaroaren 25ean, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Santa Marinan meza izango da. Izen-ematea, Sanchez ile apaindegian (943 76 23 70) edo 943 76 42 08 (Arantza Alberdi) telefonoan, azaroaren 20ra arte.

**1927**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 26an, Antxonin, 14:30ean. Aurretik, 13:00etan, hildakoen oroimenezko meza Santa Marinan. Izen-ematea Antxonin (2.000 pezetako depositoa).

**1933**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 26an, Torrekua jatetxean. Aurretik, 13:00etan, meza izango da Santa Marinan. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Torrekuan edo Intxortan.

**1977**an jaiotakoen bazkaria abenduaren 2an, Zabala jatetxean. Izen-ematea Etxagi tabernan.

# Z I N E A

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**
**La celda**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.
**Sangre facil**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Plenilunio**
Eguakitza: 22:00.
**La comunidad**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia**
**Una historia verdadera**
Eguena: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**Anatomia**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**O brother!**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**
**El hombre sin sombra**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:00.
**Asterix eta Obelix**
Domeka: 17:00.

**OÑATI. Santana**
**X-men**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
**Wonderland**
Eguena, zine-kluba: 20:00.




**LA CELDA**
**Zuzendaria:** Tarsem Singh.
**Aktoreak:** Jennifer Lopez, Vince Vaughn, Vincent D´Onofrio. ▲13 URTE

*Carl Starcher* (Vincent D´Onofrio) neska gazteak bahitu eta hiltzen dituen psikopata dugu. Hilketak bideoz grabatzeko ohitura dauka. FBIko *Peter Novak* agentea (Vince Vaughn) aspalditik *Starcher*en atzetik dabil, eta oraingoan *Catherine Deane* (Jennifer Lopez) doktorearen laguntza izango du... Tentsioz beteriko filma.

**SANGRE FACIL**
**Zuzendaria:** Joel Coen.
**Aktoreak:** John Getz, Frances McDormand, Dan Hedaya. ▲13 URTE

Coen anaiek (*El gran Lebowski, O brother!*) 1983an filmatutako lehenbiziko filma berrestreinatu egin da eta hasierako bertsioari hainbat aldaketa egin dizkiote. *Thriller* honek harrera bikaina jaso zuen bere garaian. *Abby* (McDormand) bere senarraren lankide batekin maiteminduko da eta senarrak mendekua hartu nahi izango du...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:
kutxa
gizarte-ekintza
obra social

**Euskal Herria Euskaraz taldeak datozen hilabeteetarako aurreikusita dituen helburuak azaldu zituen zapatuan emandako zuen prentsaurrean. Guztiak euskararen hizkuntz eskubideen eta ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenean oinarritzen dira. Taldeak udalerri mailan adostutako lehentasunen artean, Justizia Administrazioa euskalduntzea dago.**

IÑIGO ARREGI
Bergarako EHEko kidea

# "Euskararen plan estrategikoa gauzatzeko herria girotu behar dugu"



Arregi, EHEko kideak, taldearen helburuak aurkeztu zituen azaroaren 4an.

**G.** Zein analisi egiten du EHEk euskararen egungo egoerari buruz?

**E.** Garai batean estatutuek eta Nafarroako amejoramendu legeak ekarritako politikak, lurraldea zatitzeaz gain, euskara bera zatitzea ekarri du. Ondorioz, EAEn euskarak alegiazko ofizialtasuna du. Alegiazkoa diogu, oraindik ere argi dagoelako hainbat arlo eta tokitan, administrazioan edota anbulategietan esaterako, euskara ez dela ofiziala.

Nafarroan ere, "Ley del Vascuence"k euskara zatitu egin du legalki: iparraldeko zonaldean, eremu euskaldunena, ofizialtasuna mantendu du; Iruñerrian, eremu mixtoa, euskara bigarren mailan utzi du; Iruñerritik behera, zonalde erdaldunenean, euskarak ez du inongo pribilegio eta legitimitaterik; guztiz ezabatuta dago. Legeak oztopo ugari ekarri dizkio euskarari Nafarroan. Oraindik ere, UPN eta PSN aurrera eramaten ari diren politikarekin, euskara ezabatu nahian dabiltza.

Lurralde zatiketa ere kontuan hartu behar da. Izan ere, Frantziako estatuan hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Euskarak ez du legitimitaterik Nafarroako hegoaldean bezala.

Orokorrean esan daiteke euskararen aurkako jarrerak gogortu egin dituztela. Azken batean, hizkuntza da herri baten nortasuna adierazten duen gauza garrantzitsuenetakoa. Eta hizkuntza eta memoria dagoen bitartean, aipatu estatuendako traba bat da.

**G.** Ofizialatasun eta hizkuntz eskubideen aldarrikapena egiten duzue. Lan ildoa ere markatu duzue.

**"Euskararen ofizialtasuna eta hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko, martxora arteko lan ildoa markatu dugu"**

**E.** Dinamika piztu beharreko ezinbesteko alor batzuk daude: osasungintza, komunikabideak, administrazioa, justizia administrazioa... Euskarak ez du presentziarik apenas arlo horietan. Dinamika horiekin egoera salatu nahi dugu.

**G.** Bergarako EHEk guztiak landuko ditu?

**E.** Bai. Badago egutegi bat finkatuta hilabetez hilabete eta hainbat mobilizazio egingo dira aipatutako alorretan: azaroan osasun arloan, abenduan justizia administrazioan, urtarrilean irakaskuntzan eta otsaila-martxoa aldera mobilizazio aste bat egingo dugu. Hala ere, Bergaran lehentasun batzuk adostu ditugu, eta Bergarako EHErentzat ardatz nagusia Justizia Administrazioa izango da. Jardun elkartearekin eta AEKrekin batera, plataforma bat sortzeko bidean ere bagaude Justizia Administrazioa euskalduntzeko.

**G.** Plangintza estrategikoa gauzatzea ezinbestekotzat duzue.

**E.** Orain bi urte Bai Euskarari kanpainan sekulako giro soziala sortu zen Bergaran. Horrek ezinegona dagoela adierazi zuen. Harrezkero, hala ere, indarrak behera egin du: Bergaran, euskalgintzaren inguruko taldeen arteko harremanak behera egin du. Horregatik, Plangintza Estrategikoa abian jartzeko herria berriz girotu behar dela ikusten dugu. Horretarako ezinbestekoa da Bai Euskarari kanpainan sortutako atxikimendu maila lortzea. Horixe izango da Plangintza Estrategikoa gauzatzeko bidea. Gauzapenerako ezinbesteko papera jokatuko dute Udalak, euskalgintzako taldeek eta baita orain bi urte euren konpromisoa azaldu zuten guztiek ere.


Astero
Bailaran
Euskaraz
Doan
Abendutik aurrera, zure eskura.

# ISO 14001, Ingurumen Gestiorako Sistema agiria, jaso du Metagrak

## Agiri hori jasotzen duen Bergarako lehenengo enpresa da

**Urrian jaso zuen Metagrak ISO 14001 agiria AENORen eskutik. Orain bi urte hasi ziren Ingurumen Gestiorako Sistema garatzen. Hondakin arriskutsuen produkzio kopurua 10.000 kg murriztea lortu dute aurten.**




Jabi Ibarrak izan du Ingurumen Gestiorako Sistema garatzeko ardura Metagran.

Bi arrazoi nagusirengatik erabaki zuen Metagrak orain bi urte ISO 14001 agiria lortzea: batetik, automatizaziorako lan egiten dutenez neurri handi batean, automobil etxeak exijitzen hasi direlako agiria. Bestetik, kontziente direlako euren jardueran (torloju produkzioa) ingurumenarentzat kaltegarri diren gaiak produzitzen dituztela.

Bestalde, orain bi urte Metagrak ekintzetarako lizentzia eskuratu zuen. Lizentziak ingurumena kontuan hartzen dituen hainbat arau ditu; oinarrizkoenak ura, atmosfera eta hondakinen ingurukoak dira.

**EMAN BEHARREKO URRATSAK**

Arauen berri zabal eta eguneratua izateko aholkularitza batekin jarri zen harremanetan Metagra. Horixe izan zen, hain zuzen ere, ISO 14001 agiria lortzeko lehenengo urratsa.

Gero, ingurumen alderdien identifikazioa egin behar izan du, hau da, ingurumenean duen eraginaren inbentarioa: erabiltzen duten paper kopurua, olioa... Ondoren, ingurumena babesteko programa eta helburuak finkatu zituzten. Iaz 62.000 kg. hondakin arriskutsu produzitzen zuten, eta 2001ean 12.000 izango dira.

# Elosuko parrokiako estalkia konpontzen hasi dira

**San Andres Iraun** parrokiako estalkiaren konponketa proiektu zabalago baten barruan dago. Proiektuan abadetxearen estalkia, elizarena eta eliza atariarena konpontzea dago aurreikusita. Lanak abuztuan hasi ziren eta dagoeneko abadetxearen teilatua konponduta dago. Orain lan nagusiari ekin diote, elizaren estalkiari; izan ere, teilatuak hainbat itokin ditu, eta ura eliza barrura sartzen da. Estalkiarekin batera, hainbat elementu arkitektoniko ere berriztuko dira.

Lanek hainbat hilabete iraungo dute eta 18 milioi pezetako aurrekontua dute. Diputazioak kopuru horren %70 hartuko du bere kargu, parrokia eta Gotzaitegiak beste zati bat, eta Udalak tasak ordainduko ditu.



Estalkiko itukinak erabat gaiztotzen ari ziren parrokiako barrualdea.

# Saihesbidea desbideraketekin oraindik ere

**Joan zen astean**, eta baita honetan ere, itxita egon da saihesbidearen errei bat, eta zirkulazioa biribiletik desbideratu da, Otsein lantegiaren parean; izan ere, saihesbideko zubi horretako bi zabalkuntza-junturak konpontzen ibili da Diputazioa. Datorren astean, Altos Hornos lantegi pareko saihesbidearen zubiko junturak konponduko dituzte. Ondorioz, zentzu baterako erreia itxita egongo da eta zirkulazioa Labegaraieta auzotik desbideratuko da. Lanek astebete inguru iraungo dute gutxi gorabehera.

Labegaraietako zubiarekin amaitu ostean, Elgetara doan bidearen gainetik igarotzen den zubiaren junturak ere konponduko dituzte.



Astelehenean hasiko dira lanean Labegaraietako zubiko junturetan.

# Kalean da Gorlako Askagain kantina ustiatzeko baldintza plegua

**Udalak** Gorlako Askagain kantinaren ustiaketa adjudikatzeko baldintza plegua kaleratu du. Esleipena hiru urterako izango da eta lehiaketa publiko bidez egingo da. Edozein aurkeztu daiteke, eta epea hogei egun barru amaituko da.

Gorlako kantina itxita dago irailaren 11tik. Ordura arteko kantinako arduradunari kontratua amaitu zitzaion eta Udalak kantinaren adjudikaziorako baldintza plegua atera zuen. Hala ere, ez zen inor aurkeztu lehiaketara, eta Udalak itxita edukitzea erabaki zuen.

Bestalde, kantinan hainbat obra egitekoa ere bazen Udala. Gainera, kantinaz arduratzeko lehiaketara inor ez zela aurkeztu kontuan izanda, lan guztiak amaitu arte kantina itxita izatea erabaki zuen. Lanak dagoeneko amaituta, kantinaz arduratzeko baldintza plegua lehiaketara atera du berriro ere.



Udalak irailean egin zituen Askagain kantina handitzeko lanak.

## Asier Bardeziri ongi etorria

**Asier Bardezi** gazteari hainbat herritarrek ongietorria egin zioten joan zen martitzen arratsaldean. Bardezik hiru aste eman ditu kartzelan. Urriaren 13an atxilotu zuen Frantziako poliziak Miarritzeko goi bileragatik egindako manifestazioen ostean. Frantzian urtebetez sartzeko debekua ere badu.



## Mizpirualde egoitzaren astea

**Astelehenean**, hilak 13, hasi eta eguakitzera arte luzatuko da. Astelehenean, 17:00etan, hitzaldia egongo da: "Urteei bizitza nola eman". Martitzenean, 18:30ean, Orfeoi gazteak emanaldia eskainiko du. Eguaztenean, 16:30ean, Moises Azpiazu dantza taldearen saioa egongo da. Eguenean, 18:00etan, Musika Eskolako Txistu taldeak emanaldia eskainiko du, eta eguakitzean Iberdrolako Argia abesbatzak. Zapatuan, meza ostean, bazkaria eta dantza saioa egongo dira.

## Artekalea ireki zuten astelehenean

**Irailaren 19tik** itxita zegoen. Batetik, San Pedro parrokiako dorrea eraberritzeko lanengatik, eta, bestetik, oinezkoendako bidea hormigoiarekin gogortzeko. Hormigoiak hilabete behar du lehortzeko; horregatik egon da itxita hain luze.

# Berrigara

429 zenbakia.
2000ko azaroaren 10a.

**Irizar jauregia. Barrenkalea 33.**
**20570 Bergara.**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Posta elektronikoa:**
**berrigara@topagunea.com**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate.
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Juan Martin Elexpuru.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
B.U.A. Eustaquio Agirreolea fondoa.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### GURE ERANTZUNKIZUNA

Zenbat aldiz esan digute erosi aurretik prezioari eta kalitateari begiratzeko? Hamaika bider esaten digute guri gehien zer komeni zaigun bakarrik hartu behar dugula kontuan: prezioa, kolorea, zaporea...

Baina, jakin badakigu erosten dugun gauza oro norbaitek ekoiztu duela. Norbait aritu da mendian kafea erein eta jasotzen edota gure umearentzako larruzko baloia josten.

Langileek duintasunez egindako produktu bat eta langileak esplotatuz egin den beste baten artean aukeratu dezakeenak ezin pentsa dezake berak kontu horrekin zerikusirik ez duenik.

Produktu bat erosten dugun bakoitzean produktua egin duenari irabazi bat ematen diogu eta, beraz, aurrera jarraitzeko gure laguntza. Nori eman nahi diogu gure laguntza, herriko bizimodua hobetzeko nekazari elkarte batean batu diren Chiapaseko nekazariei edo mendietako nekazariak iruzurtuz bizi diren bitartekari esplotatzaile eta Londreseko burtsan kafearen prezioarekin espekulatzen duten multinazionalei?

Gureak izango dira erabakia eta erantzukizuna.

*Harreman, Bidezko Merkataritza Denda*

### BIDEO GELA

"Udaletxean Kultura Etxeko Islada bideo gela zerbitzua ixtea erabaki dugu, eta gauzek lehengo antzera jarraituko dute. Izan ere, nork dauka zerbitzuaren berri? Urtean zehar sortzen diren zenbait talde kurtsillo batzuen inguruan, bideo maniatiko zenbait, eta, gainera, Bergarakoak barik ingurukoak asko. Zer eta Udalak bideo zerbitzu bat mantendu, etxe gehienetan bideo zintak ikusteko aparailuak daudenean. Ez, ez, ezin xahu dezakegu herritarron dirua horrelako gauzetan. Aitzakia bezala aurrekontuak jarriko ditugu, eta ahalik eta zarata gutxien atereaz bukatuko dugu honekin. Hori da, Berrigaran lerro batzutan azalpen batzuk eta kitto".

Irudipena daukagu udal erabakitzaile zenbaiten burutik ideia jario hau pasatu dela. Eta hori, kasurik inozoenean, sekuentzia gaiztoagoa gerta baitaiteke; izan ere, zail gertatzen zaigu herrian Islada Bideo Tailerrak emandako zerbitzua aintzakotzat ez hartzea... Inozoa ala gaiztoa?

Jakin bezate herritarrek Islada Bideo Tailerrak hainbat zerbitzu eskaini dituela azken bederatzi urteotan, beste modu batean bideratu ezinezkoak izango ziren hainbat proiektu aurrera eraman direla bertako materialak erabiliz; kurtso asko eta era askotarikoak eskaini direla; zirkuituetatik kanpo gelditzen diren makina bat bideo emanaldi eman direla; bertatik makina bat herritar zein kanpotar pasa dela (zerbitzuaren garrantzia adierazten duen seinale); bertan ekoiztutako lanak Euskal Herriko bideo jaialdi desberdinetako sailkatuak izan direla eta, noizbait, baita sarituak ere; eta zerbitzua ixteko erabakia Udaleko arduradunen erabakia izan dela, beste inoren iritzia kontuan hartu gabe.

Oraindik ere dudan jartzen dugu udal erabakitzaileen ezagutza bideo gela zerbitzuari buruz (edo bestela gezurretan ari zaizkigu), eta, beraz, nolatan ez zuten kontsultatu zerbitzuaren inguruan jakitun direnekin? Aurrekontu arazoa bada, nolatan ez zuten zerbitzua eramaten duen pertsonarekin kontsultatu, negoziatu, irtenbideak aztertu?

Ez. Erabakia zirt edo zart izan da, norbaiti iruditu zaio zerbitzu horrek ez zuela merezi, eta, defentsarik gabeko juizioan heriotz zigorra erabaki du.

Hainbat urtetako lana mesprezatu eta iraindu duzue. Herri honek ez du horrelakorik merezi.

*Iñigo Iñurrategi eta Unai Ziarsolo*

## tira biraka oihan vega



## atrebentzia ezpada

# EEBBn lehendakari berrixa hautatuko dabe. Uste dozu hango politikiak eraginik izango dabela hemen?



### Miren Osa

Ez dakit. Han igarriko dabe akaso, baiña guk zeozertan igarriko dogun ez dakit.



### Begoña Zubizarreta

Eragiña izango dabela esango neuke. Zertan, zehazki, ez neuke jakingo esaten. Baiña, haren kopiaketa bat be egitten gabiz.



### Maria Pilar Ajea

Uste dot baietz. Euroa ere hortxe dago, eta hainbat gauza kopiatzen dittugu. Neurri txikixan akaso, baiña eragiña duela uste dot.



### Maite Solozabal

Ez dakit. Pixka bat bai, izan be, EEBBk mundu osoan dauka eragiña modu batera edo bestera.



### Felix Iñiguez de Heredia

Eragina daukala uste dot. Zenbaterainokua ez dakitt, baiña badauka.



### Iñaki Olaetxea

Bai, badauka. Gaiñera, berdin da bi hautagaixetako zein aukeratzen daben. Bata zein bestia izan, eragiña eukiko dau hemen.

## bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### IKUSPEN ESKASA SAIHESBIDEKO IRTEERAN

**Juan Larrañaga**ren deia jaso dugu aste honetan BERRIGARAko erredakzioan. Jakingo duzuenez, Amillagako saihesbideko irteera itxi egin zuten urriaren erdialdean eta Elgetatik datozenei edo Arrasatera joateko herri barrua zeharkatzerik nahi ez dutenei, saihesbideko lehenengo irteera (San Anton auzoan dagoena) hartzea gomendatzen zaie. Juan Larrañagaren ustez, Zubi-berri jatetxearen ondoko bidegurutzean, saihesbidera sartu eta Arrasaterako norabidea hartu nahi izanez gero, ikuspen eskasa dago irteera alboan diren zirkulazio seinaleak nahiko baxu daudelako. Ondorioz, ez da ondo ikusten autorik datorren eta arriskua dago egunen batean istripuren bat gertatzeko.


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Bolu liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta lumatxoak
Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93



# Udaltzain berria

**Xabier Izagirre** 30 urteko elgoibartarra udaltzain berria dugu. Udalak uda aurretik deitutako lehiaketara 17 lagun aurkeztu ziren eta Xabierrek eskuratu zuen lanpostua. Zuzenbidean lizentziatua da eta aurretik lau urtez Elgoibarren udaltzain lanetan izan da. Gaur egun 15, udaltzain ari dira lanean Bergaran.



# Pagaldaik apustua irabazi

**Bixente Pagaldaik** Angiozarreko Ortzi jatetxeko **Jose Luis Aizpuruarekin** egindako **apostua** irabazi zuen domekan. Ekainean elkarri apustua egin zioten: Angiozarretik Itziarreko elizaraino, korrika, gutxienez 3 ordu eta 20 minutu behar izango zituela esaten zuen Jose Luisek. Domekan, goizeko 8ak aldera, irten zen Bixente Angiozarretik eta **2 ordu eta 53 minututan** bete zuen ibilbidea, **41 kilometro** inguru. Azkenean Bixente eta bere alde egin zutenak izan ziren garaile. Probak ikusmin dexente sortu zuen Angiozarren. Azaroaren 26an Donostiako maratoian hartuko dute parte, 23. aldiz. Orain arteko ekitaldi guztietan izan da Bixente.

# Telesforo Aranzadin lorontziak

Aurreko egunetan **lau lorontzi** jarri ditu Udalak Telesforo Aranzadi kalean, apaingarri gisa. Lorontziak karratuak eta egurrezkoak dira eta metro bat baino gehiagoko altuera dute. Kalearen erdi-erdian kokatu dira, garai batean kaleko bazter batean ziren lorategitxoak nolabait ordezkatuz.





# San Migel Legazpiraino

**Jose Luis Arangurenek aurkitu zuen San Migelen irudia**, Legazpin, Arrola mendi-hegalean, joan zen **urriaren 27an**. Elbarrena auzoko Lekuona baserrikoa da Jose Luis eta piñutela bila ari zela topatu zuen irudia. Angiozarreko jaien barruan, San Migel egunean, **irailaren 29an**, San Migel zeruratu zuten auzotarrek, azken urteetako ohiturari eutsiz. Santua topatzearren, 20.000 pezeta eta datorren urteko jaietan Angiozarren afaltzeko gonbidapena jaso du Jose Luisek. San Migelen irudia egoera onean topatu zuen.

**Ione Lekuonak ireki zebenetik lan egitten dau Ortzadar lentzerixan, duela urtebete pasatxotik. Amezketarra da, Arrasaten bizi da eta 33 urte dauzka. Ezkonduta dago eta sei urteko semia dauka.**

# *Ione Lekuona*

**Zer erosi behar dizugu neguan hotzik ez pasatzeko?**
Pijama bero bat, kaltzetiñak, kamisetak, etxian ibiltzeko batak..., danetik.
**Leotarduak ala galtzak nahixago?**
Neuretako galtzak.
**Barruko erropia, zurixa ala koloretakua?**
Koloretakua.
**Emakumiak ala gizonezkuak etortzen dira gehixago?**
Bixetatik, baiña, egixa esan, emakume gehixago etortzen da.
**Eta oparixak, zeiñek gehixago?**
Mutil gazte asko etortzen da neskiandako oparixa erostera.
**Bikotekidiari dendako zer oparittuko zontsake?**
Galtzontzillo konjunto bat, *Punto Blanco*rena.
**Eguraldi hotza hasi da eta salmentak igoko dira, ezta?**
Bai, oso ondo gabiltz saltzen; gaiñera, laster Gabonak be badatoz.
**Armarixuan erropa asko daukazu?**
Gehixegi; hala be, beti falta.
**Modia jarraitzen dozu?**
Bai, erropa kontua asko gustatzen jat; gaiñera, erropa denda batian lan egin neban.
**Zela definittuko ziñuke zeure burua?**
Serixia naiz, baiña, era berian, sinpatikia; etxian, genixo txarra be badaukat.
**Zerk hasarratzen zaittu?**
Desordenak; maniatika samarra be banaiz.
**Eta poztu?**
Gabonetan-eta familixa dana juntatzen garenian oso pozik egoten naiz.
**Liburu bat gomendatzekotan?**
Ez dot bape irakurtzen; desastre bat naiz.
**Eta pelikula gustoko bat?**
Ezingo notzuke erantzun. Ez dot ez telebistarik ikusten, ezta zinera juten be.
**Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?**
Egunero ordubeteko siestia egittia gustatzen jat, eguardixan telebista ikusi...
**Asteburu baterako plan ideal bat?**
Oso gutxitan egitten dotena: asteburu osua etxian pasatzia, egonian.
**Janari bat?**
Entsalada on bat.
**Kolore bat?**
Berdia.
**Usain bat?**
Larrosiarena.
**Urtarorik gustokuena?**
Udabarrixa; negua luzia izaten da eta gustora hartzen da.
**Bukatzeko, amets bat?**
Loterixia tokatzia eta gehixago lanik egin barik bizi ahal izatia.




MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1
943 76 72 73
Mizpildi 8
943 76 12 32

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

Mujika
gozotegia
Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

PANADEROKUA
JATETXEA
Asteburuetan bertako babak eta saiheskia
SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295




# Eustaquio Aguirreolea

## Barrenkalean jarri zuen Bergarako lehen argazki denda 1891an

**Eustaquio Aguirreolea bergarar pintore eta argazkilaria gogoratuz, erakusketa antolatu du Udalak, eta bere bizitza liburu batean bildu nahi izan du. Erakusketa joan zen astean zabaldu zen, hilaren 3an, eta datorren domekara arte, hilaren 12ra arte, izango da ikusgai Udaletxeko udalbatza aretoan. Bergarako Udal Agiritegiak egindako lan hau aitzakiatzat hartu, eta bergarar honek Bergaran eta Bergaratik kanpo egindako lana eta bizitza ekarri nahi izan dugu gure orrialdeetara.**



Joxe Zapirain, "Pello Errota" eta Pedro Mari Otaño, 1896an, Arrasateko euskal jaietan.
B.U.A. EUSTAQUIO AGUIRREOLEA FONDOA

Bergarako argazkilaritzaz hitz egiteak Bergarako Udal Agiritegira garamatza. Izan ere, bertan hainbat argazkilari bergararren fondoak gordetzen dituzte: Juanito Idigoras, Roman Larrañaga..., eta, duela urtebete baino gutxiagotik, baita Eustaquio Aguirreolearena ere. Aguirreolea oso ezaguna izan zen Bergaran, bai pintore bezala, eta baita irakasle bezala ere.

### DATU BIOGRAFIKOAK

Eustaquio Aguirreolea 1867. urtean jaio zen Bergaran. Bere gurasoak "La Vergaresa" gozotegia zuten Bidekurutzetan, gaur egun Guria taberna dagoen tokian gutxi gorabehera. Oso ezaguna izan zen gozotegi hau. Baina, berak ez zuen gurasoen lanbidearekin jarraitu; beste bide bat hartu zuen.

Bergarako eskola publikoan egin zituen lehen mailako ikasketak. Gero, Bergaran zegoen marrazketa akademia batean ikasi zuen, Olazabalen akademian, hain zuzen ere. Olazabal garai hartako beste argazkilari bat zen.

Pintura ikasketekin jarraitu nahi, eta Donostiara joan zen 16 urterekin. Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen. 1890ean Parisera joan zen eta Julian Akademian aritu zen. Hurrengo urtean itzuli zen Bergarara, eta urte berean ezkondu zen, Juliana Josefa Aranarekin.

### PINTORE ETA DEKORATZAILEA

Eustaquio Aguirreolea, argazkilari izan baino lehen, pintorea zen; pintore eta dekoratzaile ezaguna zen herrian eta inguruan. Esan bezala, Olazabalen ikaslea izan zen, honek Bergaran zuen akademian. Eta, bere ezagupenak areagotu nahian, Parisera joan zen.

"La voz de Guipuzcoa"n aipatzen dira Antzuolako elizan egin zituen lanak eta baita Mariaren Lagundiako klausurako kaperan egindakoak ere. Udalarentzat ere hainbat lan egin zuen;



1922 urtean Bergaran egin zen Gorpuzti eguneko prozesioko argazkia.
B.U.A. EUSTAQUIO AGUIRREOLEA FONDOA

hala nola, bi armarri pintatu zituen, Pleno Aretoaren dekorazioan ere lan egin zuen eta Alfonso XIII.aren koadro bat ere pintatu zuen.

### NESKA-MUTIKO ASKOREN IRAKASLE

Eustaquiok eta Cayetano Bornek marrazketa akademia bat zuten Barrenkalean. Ezaguna zen oso irakasle moduan, eta ume asko aritu ziren bere eskolak hartzen, bai akademia honetan, eta baita geroago ere, Bergarako Arte eta Lanbide Eskolan; izan ere, Bergarako Udalak eskola hau abian jarri zuenean, 1903. urtean, bertan hasi zen eskolak ematen.

1936an, gerra zibilarekin alde egin zuen arte, irakasle izan zen Arte eta Lanbide Eskolan. Donostiara joan zen familiarekin. Handik urte batzutara, bere ikasle izandakoek omenaldi bat egin zioten. Simon Arrieta izan zen omenaldi horren bultzatzailea.

### ARGAZKIGINTZAREN AURREKARIAK

Bergaran, Eustaquio Aguirreolearen aurretik, bazegoen beste argazkilaririk. Alde batetik, Jose Miguel Olazabal dugu: Olazabal Seminarioko marrazketa irakaslea zen, eta bere akademia ere bazeukan. Akademia horretan, esan bezala, ikasi zuen Aguirreoleak. Hala ere, ez da segurua argazkilari profesionala zenik.

Bestalde, Valleko Kondea dugu, Inazio Murua Balzola. Hau afizionatu bat zen. Errotalde jauregian jaio eta bizi zen. Familia dirudunekoa izanik, eta garai hartan argazkilaritza boladan egonda, bere etxean bertan laborategi fotografiko bat zeukan. Bergarako Udal Agiritegian badaude bere argazki batzuk.

**Aguirreolearen argazkietan gai erlijiosoak eta euskal gaiak ziren nagusi**

### AGUIRREOLEA ARGAZKILARI

1891n hasi zen Eustaquio Aguirreolea argazkilari profesional bezala lanean. Urte hartan ireki zuen negozioa Barrenkalean: drogeria, perfumeria, pintura tailerra eta argazki denda. Platoa ganbaran zuen, eta argi naturala erabiltzen zuen, luzero batetik sartzen zena. Laborategia, berriz, denda ostean zuen.

Garai hartan, pintore askok erabiltzen zuten argazkia lanerako tresna bezala: argazkian oinarrituta euren koadroak pintatzeko. Ez dakigu non eta nola ikasi zuen lanbide hau Aguirreoleak. Baliteke Olazabal bere irakaslearekin ikasi izana, edo baita Parisen egon zen denboran ikasi izana ere.

### LAN GARRANTZITSUAK

Zenbait argitalpenetarako argazkiak atera zituen. Esaterako, *Euskal-Erria* aldizkarirako Arrasaten 1896an izan ziren euskal jaien ingurukoak, eta baita Angiolillo anarkistaren argazkiak ere Bergarako kartzelako ziegan, exekutatu aurretik. Postaletarako ere Eustaquio Aguirreolearen argazki asko erabili ziren.

Dena dela, bere argazkietan euskal gaiak eta erlijiosoak ziren nagusi. Izan ere, Eustaquio Aguirreolea gizon katolikoa eta oso abertzalea zen. Horrela, komertzial soilak izan gabe, bere lanek estilo pertsonal bat hartzen dute, eta garaiarekin konprometituak dira kasu askotan.<

## Erakusketa eta liburua, hilabeteetako lanaren emaitza

Aguirreolearen lana batu eta berreskuratzea Bergarako Udal Agiritegiko arduradunen ekimena izan da. Arantzazu Oregi arduradunaren esanetan, "jakin genuenean Aguirreolearen familiak bere materiala zuela, eurekin harremanetan jarri eta oso harrera ona egin ziguten". Materiala egoera txarrean zegoenez, berau berreskuratzeko proiektu bat egin zuten. Hau guztia eginda, lan zailena material horri buruzko informazioa biltzea izan zen. Izan ere, kristalezko plaketan, garai hartako argazkien euskarria (gaur egungo negatiboen parekoak), ez zen datarik eta bestelako informaziorik azaltzen. Beraz, lan handia izan dute eta jende heldu askorekin hitz egin behar izan dute informazioa lortzeko. Arantzazuk esan digunez, "lan hau guztia egin ostean, erakusketa eta liburu hauen bitartez, jendeari ondare hau gerturatu nahi izan diogu".

Erakusketan, Eustaquio Aguirreolearen argazkiez aparte, erabiltzen zuen materiala eta garaiko beste hainbat gauza ere ikusi ahal dira, hala nola, kristalezko plakak, argazki plato bat, dagerrotipoak, linterna magikoak...

Liburuari dagokionez, Arantzazu Oregik berak koordinatu du eta Udalak argitaratu. Joan zen astean aurkeztu zen, eta dagoeneko salgai daude. Bertan, Aguirreolearen bizitza eta lana batzen dira, eta baita berak ateratako hainbat argazki ere. Garai hartako argazkilaritzaren testuinguruan hau guztia, eta, zehazki, Bergarako beste argazkilari batzuen berri ere ematen zaigu.




Liburuaren azala.

## adituen esanetan

# Infartua



LIERNI NARBAIZA
*Medikua*

*"Infartua izateko aldakorrak diren faktoreen artean, hipertentsioa, kolesterol arazoak eta tabakoa dira nagusi gaur egun"*

Infartua gaixotasun koronarioagatik sortzen da, eta tartean, aldaezinak diren arrisku faktoreak eta aldakorrak diren beste batzuk izaten dira. Aldakorrak direnen artean, hipertentsioa (tentsio altua hain zuzen), kolesterol arazoak eta tabakoa dira nagusiak. Beste batzuk ere badira, diabetesa, gizentasuna, alkohola edo sedentarismoa, esate baterako.

Aldaezinak diren arrisku faktoreen artean, berriz, adina, sexua edo familiako aurrekariak (familian infartu kasuak izan direnean) daude. Adinari dagokionez, emakumeek menopausia izan ostean arrisku gehiago dute infartua izateko eta gizonen artean, berriz, 35-40 urtetik gorakoen artean arriskua handitzen da. Bestalde, 65 urtetik aurrera, emakumeen eta gizonen arriskua parekatu egiten da.

Erretzeari uztea ezinbestekoa da, tabakoa guztiz kaltegarria dela frogatu baita. Egunero zigarro pakete bat erretzen duen pertsona batek, erretzeari uzten badio, gaixotasun koronarioa izateko arriskua %30-40 bitartean gutxitzen du.

Kolesterol altua dietagatik izan dezakegu edo baita familiako aurrekariengatik edo beste gaixotasun batzurengatik (diabetesa, hipotiroidismoa, gizentasuna...). Hori zuzentzeko elikaduran asetako koipeak gutxitu eta landare-koipeengatik aldatzea komeni da. Okela gorri gutxiago eta okela zuria (oilaskoa, adibidez) eta arraina gehiago jan. Fibra jatea eta pisua kontrolatzea ondo etorriko zaigu.

Azkenik, tentsioari dagokionez, zifra normaletan izatea komenigarria da eta hori ariketa fisikoa eginez, tabakoa kenduz, pisua zainduz eta gatza eta alkohola neurrian hartuz lor dezakegu. Astean sei bat orduz ariketa fisikoa egitea ondo legoke, ibiliz, korrika eginez, igerian edo bizikletan.

Elikadurarekin eta ariketa fisikoarekin ez bada lortzen tentsioa eta kolesterola kontrolatzea, botikak hartzea gomendatzen da.



Infartua prebenitzeko ariketa fisikoa egitea gomendatzen da.

## bergarako errotak



# ATXURIONDO-BOLU

B 1890eko errolda ofizialaren arabera, Jose Gallastegi Askasibar (66 urte) errotaria eta Agustin Gallastegi Askasibar (82) ehulea bizi ziren garai hartan "Achuriondo" errotan (biek zekiten idazten eta irakurtzen).

1895ean Jose Gallastegi zen errotaria. 1927an errotaren urak Bergara hornitzeko hartzen hasten dira, baina ez zen ur guztia erabiliko.

1929ko GAO:

*"On Valentin Movilla bergararrak, Sobrino de Fernandez y Cia-ren izenean, eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Muzkiritxu-errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek Martires-Oxiranzu izeneko auzoan dagoen "Achuriondo" errotan argindarra sortzea du helburu. Jasotzen duen ur-emaria segundoko 60 litrokoa da, eta 5 metroko jauzia dauka..."*

1953ko GAO-n antzeko eskaera egin zuten Gonzalo, Francisco, Maria, Pilar, Carmen eta Valentin Movilla Fernandezek.

1936-1944 urte bitartean irin errota publikoa izan zen Agirrezabalen alargunaren eta semeen gidaritzapean.

Aitz-zuriondo errota Muzkiritxu-errekako urez baliatzen zen, eta beronen eskuman zegoen kokatua. Bi harri-errodete zeuzkan bi pare harri mugitzeko. Makina garbitzaile bat ere bazuten. Errotariak berak xehatzen zituen harriak. Azken errotaria Eusebio Alberdi izan zen.

Ehotzeagatik %10 kobratzen zuten.

KOKAPENA: Billotegi-errotatik 500 metrora.

Antxon Agirre Sorondo

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetariak**: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 67. zenbakia. 2000ko urriaren 10a.*

# Erreakaren auzia zain oraindik

## Plazako bizilagunek ez dute nahi erreka euren etxe ostetik

**Herriko plazako bizilagunek prentsara zuzendutako ohar batean bost puntutan azaltzen dute zergatik ez duten nahi erreka euren etxe ostetik pasatzea. Ingurumenaren eraginari buruzko txostenean oinarritzen dituzte bizilagunek arrazoi horiek. Eta etxe horien atzealdean dagoen mendiaren ez-egonkortasuna da ematen duten arrazoirik nagusiena. Izan ere, euren adierazpenen arabera "mendi hori ikutzen bada, goitik behera etorri daiteke eta konponbidea gainean beste horma batzuk ipintzea izanda ere, mendiari eusteko, arriskua ez da saihesten".**



*Oraindik ere, hortxe jarraitzen dute leihoetako pankartek.*

Horrela azaldu zuen, Jose Luis Enak, GOITBn. Hala ere, bi urte daramatzate Herriko plazako auzokideen balkoietan "alibiaderoa atzetik, baina estalita" dioten pankartek.

Hori horrela izanda, Antzuolako Udalak ez du ulertzen auzokideen iritzi aldaketa. Mireia Unamunok azaldu digunez, "Herriko plazatik pasatzen den erreka zabalduz gero, herria plaza barik geldituko litzateke eta bide batez, gutxienez hiru etxe bota beharko lirateke". Horren aurrean, aurreko udal gobernuak adostu egin zuen erreka bere horretan lagatzea eta Herriko plazako etxeen atzealdetik beste ubide bat egitea. Legeak, ordea, ubide berri hori irekia izan behar dela agintzen du.

Herriko bizilagunen oharrak, udalari eskatzen dio erespontsabilitate gehiago izatea kaltetutako bizilagunekiko, izan ere, "bera izango baita gerta daitekeenaren arduradun". Udalak adierazitakoaren arabera, "aztertu egin beharko da arduren kontu hori, baina ez dugu ulertzen bizilagunen iritzi aldaketa".

**AURREKARIAK**

Antzuolan erreka desbideratzeko asmoa 1988ko uholdeen ondoren sortu zen. 1983an, plazan egindako obra batzuen ondorioz, ubidearen ahoa estutu egin zuten, ordutik, urak dakartzan hondarrak ahoan trabatuta geratzen dira, Surpe taberna pareko zubian.

Bi aukera daude ibaiaren arazoa konpontzeko: ibaia plazatik pasatzea baina estali gabe. Horrela, ubidea zabaltzeko aukera egongo litzateke eta uholdeen arriskua saihestu. Baina aldaketa garrantzitsuak ekarriko lituzke: herriko plaza desagertuko litzateke eta berria eraiki beharko litzateke. Horrez gain, bi etxebizitzatan eragina izango luke.

Bigarrena honakoa da: ibaia desbideratzea. Horrela ibaia bitan zatituko litzateke. Zati batek orain bezala jarraituko luke, plaza azpitik. Bigarrena plazako hainbat etxebizitza eta udaletxe atzetik pasatuko litzateke eta estalita gainera.

Azken hau da, hain zuzen, 1998. urtean, EAJko gobernuak erabaki zuena. Eta baita oraingo gobernuak defendatzen duena ere. Hala ere, plazako biztanleak ez daude ados erabakiarekin. ■

■ ■ ■

*Herriko plazatik pasatzen den erreka zabalduz gero, herria plaza barik geratuko litzateke*

■ ■ ■

# Elay, Elhuyarren festan

## Elhuyarrek euskara bultzatzen diharduten enpresekin jaia egin zuen

**Aramaion izan zen festa hori Elhuyarrek antolatua. Euskara bultzatu eta indartzen diharduten enpresek aurkezpen festa ospatu zuten. Bertara bost enpresatako ordezkariak joan ziren.**



*Urriaren 21ean ospatu zuten jaia Aramaion.*

Elay izan zen enpresa mailako euskararen sustapenerako plangintzen aintzindaria. Enpresetako ordezkariek festa honen bidez elkar ezagutzeko aukera izan zuten eta euren balorazio eta esperientziak azaldu zituzten. Egun pasa ederra egin zuten gainera, poteo,bazkari, eta bertsolariekin.

**ELAYKO ESPERIENTZIA**

Badira ia zortzi urte, euskaratze plangintza abian jarri zela Elayn. 1992an %65 euskaraz jarduteko gai zen enpresan. 1996ko ekainean, plangintza bukatu zenean, % 90koa zen Elayko euskaldun kopurua. Elay taldeak bi helburu nagusi zituen: bata euskaldunak ez zirenak euskalduntzea, eta bigarrena ahozko euskaratik idatzizko euskarara pasatzea. Agiri guztiak euskaratu zituzten eta"Komunikazio zirkulua" ere sortu zuten, egunero ordubete hiztegi tekniko bat egiteko elkartzen ziren, gaztelerazko ehunka hitz euskaratzeko.

Orain, plangintza amaituta badago ere, Elhuyarrek urteetan egindako lanaren ondorioz oraindik badaude euskara taldeak Elayn, adibidez, bulegoetako jendeak oraindik prestakuntza lanetan dihardu. Gainera diote, "emaitza osoak lortzeko, uste dugu 20 urte beharko direla, agian gutxiago, 12-15 urte, baina hau baikorregia izango da. Hala ere ez dugu ahaztu behar hasi ginenean bazegoela jende kopuru bat, batez ere, adinagatik edo, ezin zirenak plangintza honetan sartu, baina gazteak lanera sartu ahala euskaldun kopurua eta euskaraz egiteko joera handitu egin da".

Elhuyarrek, Elaykoen hitzetan, "lan handia egin du, baina ez dugu ahaztu behar, langileen partetik ere ahalegin handia egin dugula. Ahalegina orokorra izan da, baita zuzendaritzarena ere:"

**HELBURU OROKORRAK**

Elhuyarrek enpresa askotara zabaldua du dagoeneko plangintza hau, eta oinarria nahiko antzerakoa du, nahiz eta kasu bakoitzean diagnosi ezberdina egin, ezin baita lan berdina egin %60-70eko euskaldun kopurua duen enpresa batean edo %15-20 duenean. ■

## Arrolaren erakusketa

Arrolak egin zuen perretxiko erakusketan 150en bat espezie erakutsi zituzten eta horietatik 93 sailkatuta.



ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTi
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

# Mahai inguru zabala

**Elkarrik mahai ingurua antolatu zuen urriaren 26an udeletxeko areto nagusian. Ehun lagunetik gora elkartu zen udaletxean eta hizlariak EAJko Juan Mari Juaristi, EHko Joseba Permach, EAko Martin Aranburu, Zutikeko Joxe Iriarte"Bikila" eta Elkarriko Bittor Aierdi izan ziren. Moderatzailea, berriz, Mikel Irizar, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibako lehendakaria. Mahai inguruaren ondoren, herriko politikariek duten iritzia jaso nahi izan dugu.**

**Jose Angel Zabalo, EAJ**
"Nik bi gogoeta egingo nituzke: lehenengoa, alde guztietako jendea etorri zela eta hori ona da. Bigarren gogoeta: duela 25 urte bide ezberdinetatik, baina denak Aizkorrira iristea zuten helburu. Galdetuko nuke gaur egun non gauden, atzerago, bidean galdu garen edo zer gertatu den".

**Juan Antonio Iturbe, EH**
"Mahai inguruak ondo daude. Jende asko egon zen eta beharrezkoak dira, baina nik garrantzi handiagoa emango nioke herrian elkarrizketa bultzatzeari, herriko taldeen artean".

**Fernando Lete, Elkarri**
"Jendearen erantzuna ezin hobea izan zen. Politikariek esan zuten eztabaida eta elkarrizketaren aldeko dokumentuak zituztela lantzeko, mahai gainean zituztela, eta niretzat horrek esperantzarako ateak irekitzen ditu. Bestalde, esango nuke, konklusio moduan, elkarrizketa dela irtenbide bakarra eta herriaren borondatearen bidez aterako dugula egoera hau aurrera".

**Juan Jose Azkarate "Errota", Zutik**
"Labur-labur esango nuke, alde batetik jendea interesatua dagoela; gainera, alderdien ikuspegi eta soluzio bideak ezberdinak dira; bestalde, alderdiek arazo sozialak gutxi lantzen dituzte eta, azkenik, ETAren su-etena beharrezkoa ikusten dugu".

**Gurutz Madariaga, EA**
"Nik bi gogoeta egingo nituzke: lehenengoa, jendearen erantzuna oso ona izan zela izango litzateke, eta bigarrenik EA-tik garbi ikusten dugula ETA oztopo bat dela, eta, era berean, arazoei aurre egiteko elkarrizketa bultzatu beharra dagoela".


*Jose Angel Zabalo.*


*Juan Antonio Iturbe.*


*Fernando Lete.*


*Juan Jose Azkarate.*


*Gurutz Madariaga.*

## Emaitza arrakastatsua

**Urriaren 28an**, zapatuan, Zurrategin ospatu zen Hirugarren Munduarekiko elkartasun eguna. Tortilla lehiaketaren ondoren, arratsaldeko 18:00ak aldean hasi zen festa, txokolate-janarekin. Eskatutakoari erantzunez, jendeak kafea, txokolatea, pastelak, pastak, eta tartak eraman zituen. Modu ezin hobea gozo gosea ase eta diru laguntza emateko. Antolatzaileen hitzetan, "oso balorazio ona egiten dugu. Guztira, merkataritza zuzeneko postuarekin eta diru laguntzekin 115.000 pezeta atera ditugu, eta, gainera, jendearen erantzuna oso ona izan da." Bertaratu ziren guztiek Duo Plaentxirekin gozatzeko aukera izan zuten.



Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez

**Tailerra:** Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
**Erakusketa:** Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

## Mikel Larrañaga, Eibarko futbol jokalaria

# *"Futbolian, gustoko dotelako egitten dot, eta jarraitzeko asmua daukat"*

**Badira urte batzuk Mikel Larrañaga futbolean aritzen dela. Bere hitzetan "beteranua" bada ere ez dirudi behintzat bere entrenatzaileek baztertzeko asmorik dutenik. 30 urteko suhiltzaile honekin elkarrizketatxo bat egiteko aukera izan dugu.**



"Maki"k laugarren denboraldia du Eibarren.

**Zenbagarren denboraldia da Eibarren zabiltzala?**

Lehenengo Bergaran ibilli nintzan, hiru urtian, gero Antzuolan be ibiltzeko aukeria izan neban, baina Eibarren aurten laugarren tenporadia da. Eibarren bigarren ekipuan jokatzen dot, baina noiz edo noiz pasau izan naiz lehenengo ekipora.

**Zer moduz zabiltza aurten? Eta ekipoa?**

Nik betik jokatzen dot, Eibarren jende gaztia dago, eta beteranua naizelako edo, neuk jokatu egitten dot. Ekipuari dagokixonez, hasieran geizki hasi giñan, baina azkenengo lau partidutan ondo ibilli gara, egoeriari bueltia emoteko modua izan dogu horrela. Nere asmua, egixa esan, beti izan da futbolian ondo pasau eta deportia egittia, baiña iaz maillaz igo giñan eta orain gauzak diferente ikusten die, Luis Perez eta Estibalizen mailako jokalarixak dauzku taldian eta ikuspegixa be pixkat aldatu egitten da. Gaiñera aurten irteera luziaguak be egin bihar dittugu, eta hau berrixa da.

> "Iaz maillaz igo giñan eta gauzak diferente ikusten die"

**Zein asmo daukazu gerora?**

Eibarren politikia beteranuak kentzia da, edade batetik aurrera jendia kentzeko joeria dauka. Nik badira urte batzuk pentsatzen nabillela, "hau azkenengo urtia izango dot," baiña ez dot hau oso serixo hartu. Gaiñera entrenatzailiak beti eskatu izan dost jarraitzeko, eta nik garbi daukat nik futbolian gustora egitten dotela eta jarraitzeko asmua daukatela.

**Herriko taldeei jarraipenik egiten diezu? Nola ikusten dituzu?**

Bai, jubenilak iaz neuk entrenau nittuan eta horregatik edo, beti egitten dot jarraipen bat. Nagusixen taldiarekin sorpresia hartu neban, nik uste nebalako hobeto ibiliko ziela. Jubenilak berriz, ondo dabitz, talde ona dauke; igual letxe txar pixka bat falta jakue.

Neskak iaz lan haundixa egin zeben. Taldia osatu dabe eta, nik animosa eta futbolian jokatzeko ilusiño haundixakin ikusten ditxut. ■


KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •


GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

GASTON Y DANIELA



Inglesina®

bébé confort®

Kruz Gallastegi 3 BERGARA ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala







**BANKOAren zure bulego berria helbide honetan dago.**

Orain, zabal-zabalik dauzkazu jada ateak, zure premia eta proiektu finantzarioei itxura emateko. **BANKOAren bulego berriko ateak**, hain zuzen ere, **Ibargarai kaleko 3an.** Zatoz eta punta-puntako zerbitzu-aukera zabala gozatu ahal izango duzu. Zatoz eta bertan aurkituko dituzu banku txiki baten ezaugarriak diren tratu pertsonalizatua, hurbiltasuna eta eragiteko malgutasuna, erakunde finantzario handi batek bere-bereak dituen sendotasuna, esperientzia, produktuen aukera zabalagoa eta berrikuntza teknologikoarekin batera.

bankoa CRÉDIT AGRICOLE

# Rabada-Navarro klasikoa eskalatzen Ordesan

**Euskal Mendizale Federazioak kaleratzen duen "Pyrenaica" aldizkariaren 200. alean Ion Berasategi mendizale bergararrak (31 urte) idatzitako artikulua dator. Bertan, Iker Etxebarriarekin (28 urte) batera, Ordesako Rabada-Navarro izeneko eskalada bidea egin zueneko kronika jasotzen da.**



Argazkian, Ion Berasategi Ordesan ateratako argazkian.

Aipatutako eskalada 1997ko abuztuan egin zuten. Ionek azaldu digunez, "orduan bialdu genuen artikulua aldizkarira eta orain argitaratu dute, 200. zenbakia Pirinioei buruzko ale berezia delako-edo".

Rabada eta Navarro Aragoiko eskalatzaileek Pirinioetan bide asko zabaldu zituzten eta Alpeetan hil ziren. Ionen hitzetan, "bi eskalatzaile horienganako mirespena izan dugu beti eta beraiek zabaldutako bideren bat eskalatzeko asmoa geneukan aspalditik. 1996. urteko azaroan lehen ahalegina egin genuen, baina, hotza zela eta, atzera egin behar izan genuen".

Esan bezala, 1997ko abuztuaren 13an ekin zioten Rabada-Navarro bidea eskalatzeari. Bidea oso ezaguna da eta Ionen ustez ez da Ordesako nekezena: "Oso eskalada polita da, eskalada librea eta artifiziala egiteko aukera ematen dizulako. 400 metro inguruko pareta da eta, egia esateko, ez da aparteko mailarik behar eskalatzeko. Guk zazpi ordu inguru behar izan genituen". Ikerrek eta Ionek behin bakarrik eskalatu dute Rabada-Navarro klasikoa: "normalean bide bat egin eta gero besteren bat egiteko gogoa izaten dugu".

Elkarrekin askotan ibiltzen dira kirol eskalada praktikatzen Pol-Pol Mendizale Taldeko kideak, Araotzen, Etxaurin edo Riglosen.

## Mendi irteera azaroaren 19an

**Alpino Gorlak** eta Pol-Pol Mendizale Taldeak azaroaren 19an Aralarrera joateko irteera antolatu dute. Irteera goizeko 8etan izango da Frontoitik. Txartelak (bidaia eta bazkaria barne) 3.000 pezetan salgai Pol-Poleko bulegoan.

## Kirol Zerbitzuaren oharra

**Kirol Zerbitzuak** jakinarazi duenez, 2000 urteko txostenak eta hurrengo urterako dirulaguntzak eskatzeko epea hilaren 30ean bukatzen da, kirol elkarteen eta kirolarien ohiko jardueretarako, eta baita ez ohiko ekitaldietarako ere.

## Etxanizek galdu Titinen aurka

**Jokin Etxanizek** 19-22ko emaitzarekin galdu zuen domekan Titin III.aren aurka, Logroñoko Adarraga pilotalekuan. Etxanizek partidu ona egin zuen, baina ez zuen Triciokoa kanporatzerik izan. Lau t´erdiko txapelketari agur esan dio bergararrak.

INFERNUKUA
TABERNA
Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



# 170 bat bergarar Behobia-Donostian

**Domekan** jokatuko den Behobia-Donostia lasterketan herriko 170 lagun inguru izango dira. Herriko partaidetzak gora egin du joan zen urtearekiko. Orduan, 109 herritar izan ziren proba amaitu zutenak. Fortuna elkarte antolatzaileak emandako datuen arabera, domekan 10.000 lagun inguruk hartuko dute parte. Berritasun gisa, partaideek benetako denbora neurtzeko txip bat eramango dute aurten.


Bergarar ugari izango dira domekan Behobia-Donostia proban.

Joan zen urteko ekitaldian Jon Arantzabal izan genuen herriko onena, 1:08':18"ko denborarekin. Nesketan, Saioa Berraondok egin zuen markarik onena (1:39:02).

Behobia eta Donostia bitarteko 20 kilometroak bete beharko dituzte korrikalariek, tartean Gaintzurizketa eta Mirakrutzeko gainak. Proba goizeko 11etan hasiko da eta helmuga Boulevardean egongo da aurten.

### *GAIZKA DE MIGUEL / Txirrindularia*

## *"Mendiko bizikletan, jaitsiera teknikoak nahiago ditut"*

**Aurtengo denboraldian Gipuzkoako mendiko bizikleta jaitsiera txapelketa eskuratu zuen, Altzan jokatutako proban, 23 urtetik azpikoen mailan. Euskadiko Open sarian ere aurreko postuetan izan da Gaizka (22 urte) eta datorren urtean eliteko kategorian hartuko du parte.**

**G.** Gipuzkoako txapelketa lortzea espero zenuen?

**E.** Jokatutako bi txandak korritu ondoren (jaitsiera 3 km. ingurukoa zen), ez nuen irabaztea espero, txandetako batean kataia atera zitzaidan-eta. Zortea nire alde izan nuen.

**G.** Zelan hasi zinen mendiko bizikleta jaitsieratan parte hartzen?

**E.** 16 urterekin-edo mendiko bizikleta erosi nuen eta horrelako probetan parte hartzera animatu nintzen, jaitsierak egitea izugarri gustatzen zaidalako.

**G.** Ez da kirol arriskutsua?

**E.** Bai, baina arriskua kontrolatzen jakin behar da. Kirol guztiek bezala, bere arrisku puntua dauka, baina burua ere erabili behar da, gauzak neurtuz. Lesioak izan ditudan arren, gustura ibiltzen naiz.

**G.** Zelako jaitsierak atsegin dituzu?

**E.** Oso azkarrak ez direnak; teknikoak nahiago ditut, saltoak eta kurbak dituztenak.

**G.** Zein modalitatetan aritzen zara gusturago?

**E.** Jaitsieraz gain, dual izeneko probak egoten dira, beste baten kontrako neurketak. Jaitsieretan ez daukazu besteen erreferentziarik eta dualak asko gustatzen zaizkit, adrenalina gehiago botatzen duzulako.



**G.** Non entrenatzen duzu?

**E.** Bizikleta hartu eta Bergara eta Oñati inguruan ibiltzen naiz batik bat. Ez dut entrenamendu espezifikorik egiten. Batzutan, Lasarte, Azpeitia eta Andoaingo lagunok zirkuituetan entrenatzeko elkartzen gara, gure artean giro ona baitago.

**G.** Zein kualitate behar dira?

**E.** Teknika, indarra eta fondoa izatea.

**G.** Zein bizikleta duzu?

**E.** Joan zen urtean "Kastle" bat erosi nuen. Mantenimendu gastuak nahiko garestiak dira eta nire asmoa orain daukadan bizikletarekin erretiratzea da...




Labegaraietako
# futbito txapelketa

## EMAITZAK

**A MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Bildurbarek-Apa Oxemai | **8-7** |
| Bar Ugarte-Fac | **2-1** |
| Torrekua-Eri | **3-1** |
| Pagomendi-Irubide | **7-2** |
| Bar Canalejas-Buya | **9-6** |
| Errotagain-Amoskibar | **8-1** |

**B MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Amilotx-Agirrebeña | **6-1** |
| Manitou-Etengabe | **10-1** |
| Vacalouras-Kanpazar | **3-9** |
| Bayer-Pinturas Bergara | **7-4** |

**C MULTZOA**

| | |
|---|---|
| Ezinleike-Patxaran Team | **4-3** |
| Shaktale-Mo(ko)lotov | **3-4** |
| Komando P.-Mongatxurrak | **1-5** |
| Guadalest-Artusamak | **1-4** |
| Aterpe-Ortzi | **4-3** |

## PARTIDUAK

**ZAPATUAN BARRUAN**

| | | |
|---|---|---|
| **9:30:** | Manitou-Vacalouras | **Kanpazar** |
| **10:30:** | Kanpazar-Suntsitzaileak | **Agirrebeña** |
| **11:30:** | Agirrebeña-Aterpe | **Fac** |
| **12:30:** | Fac-Torrekua | **Aterpe** |
| **17:30:** | Pinturas Bergara-Amilotx | **Mongatxur.** |
| **18:30:** | Mongatxurrak-Guadalest | **Ezinleike** |
| **19:30:** | Ezinleike-Shaktale | **Guadalest** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | | |
|---|---|---|
| **9:30:** | Artusamak-Txipiron | **Tom Cat** |
| **10:30:** | Tom Cat-Bayer | **Txipiron** |
| **11:30:** | Buya-Errotagain | **Apa Oxemai** |
| **12:30:** | Apa Oxemai-Canalejas | **Errotagain** |
| **16:00:** | Amoskibar-Eri | **Irubide** |
| **17:00:** | Irubide-Bildurbarek Opel Lam | **Bar Ugarte** |
| **18:00:** | Bar Ugarte-Pagomendi | **Latex** |
| **19:00:** | Latex-Patxaran Team | **Mo(ko)lotov** |
| **20:00:** | Mo(ko)lov-Komando Piperrak | **Patxaran** |

## ARGI!

**Historiala egin nahian**

Labegaraietako futbito txapelketako antolaketa batzordea orain arte jokatutako ekitaldi guztietako historiala osatzen ari da. Horretarako, noizbait trofeoren bat eskuratu duten taldeekin harremanetan jarri nahi dira antolatzaileak, datuak jaso eta osatze aldera.

**Txartelik ez**

Azken jardunaldiko partiduetan epaileek ez zuten txartel bat ere erakutsi. Taldeen portaera goraipatzeaz bat, antolaketak epaileei zorroztasun osoz aritzeko eskatu nahi die.

## GORA eta BEHERA

**Aterpe, Mo(ko)lotov, Artusamak**

Aterpek lidertzari eutsi zion Ortziri irabazi ondoren. Mo(ko)lotovek lehen garaipena lortu zuen eta Artusamak taldeak erraz irabazi zion Guadalesti.

**Etengabe, Komando Piperrak, Amoskibar**

Etengabek 10-1 galdu zuen Manitouren aurka. Amoskibarrek ere gol zaparrada jaso zuen eta K.Piperrak taldeak ez zuen bere maila erakutsi.

## SAILKAPENA

**A multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Bar Ugarte | 18 | 6 |
| 2. | Bar Canalejas | 18 | 6 |
| 3. | Bildurbarek Opel Lam | 16 | 6 |
| 4. | Pagomendi | 15 | 6 |
| 5. | Errotagain | 13 | 6 |
| 6. | Fac | 9 | 6 |
| 7. | Apa Oxemai | 4 | 6 |
| 8. | Buya | 4 | 6 |
| 9. | Eri | 3 | 6 |
| 10. | Torrekua | 3 | 6 |
| 11. | Amoskibar | 3 | 6 |
| 12. | Irubide jatetxea | 0 | 6 |

**B multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Aterpe | 18 | 6 |
| 2. | Ortzi | 13 | 6 |
| 3. | Amilotx | 12 | 6 |
| 4. | Pinturas Bergara | 10 | 6 |
| 5. | Manitou | 10 | 6 |
| 6. | Tom Cat Argandolas | 10 | 5 |
| 7. | Kanpazar | 9 | 6 |
| 8. | Bayer | 6 | 6 |
| 9. | Vacalouras | 4 | 6 |
| 10. | Agirrebeña jatetxea | 1 | 6 |
| 11. | Etengabe | 1 | 6 |
| 12. | Suntsitzaileak | 1 | 5 |

**C multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Mongatxurrak | 18 | 6 |
| 2. | Artusamak | 13 | 6 |
| 3. | A Ze Flaxa | 12 | 6 |
| 4. | Ezinleike | 9 | 5 |
| 5. | Komando Piperrak | 9 | 5 |
| 6. | Guadalest | 6 | 5 |
| 7. | Patxaran Team | 6 | 4 |
| 8. | Latex | 3 | 5 |
| 9. | Shaktale | 3 | 5 |
| 10. | Mo(ko)lotov | 3 | 5 |
| 11. | Txipiron | 3 | 3 |


**Informazio hau babesle hauei esker:**



**OGIZUN**
**koop. elk.**
**okindegia**

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13



**Irizar 2**
**☎ 943 76 14 95**

**JAUJA KIROLAK**


## mahoneroak



**"PITI" UNAMUNO**
**BKEko presidentea**

Partidu nahiko txarra jokatu zuen taldeak zapatuan Aurrera Vitoriaren aurka. Jokalariei grina pixka bat falta izan zitzaien partidua aurrera ateratzeko eta pena da etxeko azken bi partiduetan eta Hernanin berdinketa lortu izana. Ezin dugu punturik oparitu. Dena dela, zapatukoa emaitza zuzena izan zela uste dut, bi taldeak antzera aritu baitziren.

Lehen zatia ahazteko modukoa izan zen. Epaileak gehiegi barkatu zien gasteiztarrei, faltak besterik ez zituzten egin-eta. Bigarren zatian bai eurak eta bai guk markagailuan aurretik jartzeko aukerak izan genituen, baina inork ez zuen asmatu. Zerbait azpimarratzearren, zaletuen jarrera aipatuko nuke, jende dezente etorri baitzen Agorrosinera eta hori eskertzekoa da.

Asteburuan UPVren aurka jokatu ondoren, Reala hartuko dugu etxean. Ziur naiz partidu hori irabaziko dugula. Jokalarientzat ere partidu erakargarria da eta ea hiru puntuak lortzen ditugun gure zaleen aurrean.

**Otsein Saria**

Aurrera Vitoria taldearen aurka honako hauek nabarmendu ditugu:

| | |
|---|---|
| **Jokin Mendiaratz** | **3 puntu** |
| **Gorka San Vicente** | **2 puntu** |
| **Aritz Arabiourrutia** | **1 puntu** |

*Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.*

# Bergara-Antzuola bigarren erregional mailako derbia zapatuan


Bergarak ezinbestekoa du bihar, Antzuolaren aurka, garaipena lortzea.

**Bergarako** bigarren erregional mailako futbol taldeak Antzuolaren aurka jokatuko du Ipintzan bihar, zapatua, 15:30ean. Bergarak derrigorrezkoa du irabaztea bigarren faserako sailkatu ahal izateko.

Azken jardunaldian, zapatuan, 4 eta 1 galdu zuten mahoneroek Zestoaren aurka. Bergararrak aurreratu ziren Xabier Etxanizek egindako golari esker eta atsedenean gol bateko aldearekin joan ziren aldageletara. Hala ere, bigarren zatian zestoarrek buelta eman zioten markagailuari eta lidertzari eutsi ahal izan zioten. Zestoak ez du partidurik galdu lehen itzuleran. Zortzi puntuko aldea ateratzen dio Aurrera Ondarroari.

Bergara sailkapeneko bosgarren tokian dago, 8 punturekin. Bi partidu irabazi, bi berdindu eta gainerako hirurak galdu egin dituzte eta, beraz, biharko partidua hil edo bizikoa izango da. Bigarren faserako sailkapeneko lehenbiziko laurak sailkatzen dira eta Bergarak sailkapenean bere atzetik diren Antzuola (6 puntu), Amaikak Bat (8 puntu) eta Urki (5) taldeen aurka jokatuko du. Karlos Lasa entrenatzailearen hitzetan, "partidu erabakigarriak izango dira hirurak eta ea taldeak bere mailarik onena ematen duen".

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**
**Bergara-Lengokoak**
Ohorezko kadeteak
Zapatua. 11:30. Ipintza
**Bergara-Antzuola**
Bigarren mailako erregionala
Zapatua. 15:30. Ipintza
**Bergara-Eibartarrak**
Neskak. Zapatua. 17:15. Ipintza
**Bergara-Eibartarrak**
Bigarren mailako kadeteak
Domeka. 10:00. Ipintza
**Bergara-Sporting Herrera**
Ohorezko jubenilak. Domeka. 11:30. Ipintza
**ESKUBALOIA**
**Bergara-Almen**
Kadete mutilak. Zapatua. 16:15. Kiroldegia
**PILOTA**
**Lagunarteko partidu bat** eta ondoren
**Bergara-Aretxabaleta**
(lehen mailako seniorrak)
Gaur, eguakitza, 20:00etan,
Udal Pilotalekuan
BAQUE TXAPELKETA
Kadete eta jubenilen zonaldeko finalak.
Martitzenean, 19:30ean, Udal Pilotalekuan

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
**Hernani 0; Aurrera Vitoria 0**
Hirugarren maila
**Zestoa 4; Bergara 1**
2. erregionala
**Urki 1; Bergara 6**
Neskak
**Mariño 2; Bergara 6**
Ohorezko jubenilak
**Bergara 2; Mondragon 5**
Lehen mailako jubenilak
**Hernani 5; Bergara 0**
Ohorezko kadeteak
**Aurrera Ondarroa 5; Bergara 2**
Bigarren mailako kadeteak
**Bergara 5; Aretxabaleta 5**
Infantilak
**ESKUBALOIA**
**Bergara 19; Almen 23**
Jubenil mutilak
**Urola 15; Bergara 14**
Kadete mutilak
**PILOTA**
**Bergara 22; Aloña Mendi 9**
Bigarren mailako afizionatuak
**Añorga 22; Bergara 17**
Jubenil banaka
**Antzuola 22; Bergara 20**
Baque txapelketako final laurdena
(jubenil banaka)

## Selekzioa



**Eguenean** Jon Odriozola txirrindularia, Aitor Elkoro pilotaria eta Martxel Toledo Esait-eko kidea hizlari izan ziren Artatsen, eta moderatzaile lanetan Jabotxa Fernandez aritu zen. Guztiak bat etorri ziren euskal selekzioa eratzeko dauden eragozpenak aitortzeko orduan.


izeder
**ARTE DEKORATIBOKO**
**ikastaroak**
943 76 71 05. Arruriaga 2

PB
**PINTURAS BERGARA S.L.**
• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK • ERROTULOAK
Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**


1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Matxiategi. Deitu 943 76 34 33 telefonora.

Zubiaurre. 100 m². Prezio ona. 943 76 28 49 edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

Duplexa Urteagan. Berriztua eta berogailuarekin. 43 76 73 07 (Belen).

Apartamentu txikia Barrenkalea 34an. Oso txukuna eta jantzia. Deitu 656 740 165 telefonora.

Zabalotegi, ganbararekin eta berriztua. 50 m². Deitu 943 76 07 01 telefonora.

### EROSI

Baserria erosi edo alokatuko genuke. 943 76 73 41 (Aintzane), arratsaldez.

### ERRENTAN EMATEKO

Logelak alokairuan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 943 76 15 40.

### ERRENTAN HARTZEKO

Etxea hartuko genuke errentan, aukeran, San Antonio edo Labegaraieta inguruan. 943 76 18 73.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 696 782 176 (Loli) edo 630 712 318 (Marta).

Pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 40 79 (Karmen)

Etxea alokatu nahi dut Bergaran edo inguruan. 943 76 30 84.

Etxea alokatu nahi nuke. 943 76 90 83.

Apartamentu txiki baten bila nabil. 655 747 321.

### ETXE KONPARTITUAK

Pisua osatzeko, animaliak gustuko dituen lagunaren bila nabil. Deitu 639 506 240 telefonora.

Gela edo pisu konpartitua alokairuan hartu nahi nuke. Deitu 943 36 34 59 telefonora (Rakel).

### BESTELAKOAK

Lursaila salgai Errioxan, San Millan de la Cogollan. 943 76 26 95.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Ibargarai. 943 76 00 93.

S. Lorentzo. 943 76 14 97.

Bolu. 943 76 04 39.

Antzuolan, Ibarrondo kalean. Apalekin. 943 78 70 08.

### ERRENTAN EMATEKO

Boni Laskurain. 943 76 49 56.

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain. 606 217 256.

## 3. LOKALAK

### ERRENTAN EMATEKO

San Juanen bi lokal (60 eta 50 m²). Gasa ipintzeko aukera. 943 76 21 15.

Lokala errentan Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²). Oso merke. 606 962 380.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Neska edozein lanetarako gertu. 600 600 531.

Emakumea umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 56 92.

Lana egingo nuke 15:00etatik 17:00etara. 943 76 36 68 (13:00-14:00 eta 19:00-21:00).

Mutil atzerritarra lanerako gertu. 686 662 271.

### ESKAERAK

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 09 17.

Emakumea behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 71 96.

Neska edo andre euskalduna behar da goizetan umeak zaintzeko. 943 76 53 27.


**ETXAGI**
**JATETXEA**
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**BARRAN**
lan egiteko jendea behar da
943 76 18 49

**ARKO**
**Lan eskaintza**
**Publizitate teknikaria**

BALDINTZAK:
- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:
- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komunikabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate eta inguruak ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Curriculumak azaroaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan
Otalora Lizentziatua, 31 ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

**Aldoka Maldoka**
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

**ARRI**
Industri hornidura
Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.

Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 70 33.

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 19 27.

## 5. IRAKASKUNTZA

### ESKAINTZAK

Ingeles Filologian lizentziadunak ingeles eskolak ematen ditu. 943 76 30 28 / 659 331 741.

Marrazki eta pintura eskolak ematen ditut. 943 76 40 14.

### ESKAERAK

Batxilergoko 1. mailako eskola partikularrak jaso nahi genituzke. Deitu 653 749 990 telefonora.

## 6. IBILGAILUAK

### SALDU

Yamaha FZR 600 moto more-beltza. 1993. Maletina eta osagarriak. 627 210 891.

Suzuki Marauder 250 cc motoa. 629 771 085.

Ziklomotorra. 943 76 54 11.

Trialeko motoa. 250 cc. 125.000 pta. Deitu 943 79 78 36 telefonora.

Honda CB500 motoa (1996). 34 CVra mugatuta. Estrak. 678 084 367.

Renault Laguna. Bi urte eta erdi. 70.000 km. 943 76 45 73.

Fiat Tipo 2.0 16V (SS-AN). 686 457 610 (18:00etatik aurrera).

Derbi Variant motoa. Deitu 943 76 49 88 telefonora.

Opel Kadett 1.7 D (SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000 HDI. Otsailean erosia. Estrak. 610 384 896.

Scooter Skipper 125 motoa. Matrikulatua, ia berria. 943 76 61 05.

## 7. ANIMALIAK

### SALDU

Yorkshire Terrier txakurkumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

## 8. DENETARIK

### SALDU

Senar-emazteendako logela: Roche Bobois markako ohea eta mahaitxoak. 943 76 71 50.

Umeendako logela: zuriz lakatutako armairua eta sinfonierra. 943 76 71 50.

Piragua ia berria, gerriko estalkitxoa eta arraunarekin. Merke. 943 79 78 36.

Irristagailudun tronboia. Ia berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7 kaxoiduna. Ia berria. Prezio ona. 943 76 12 01 edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschrueders HC30R pianoa. 943 76 06 41 (gauez).

Ordenagailuaren bozgorailuak. 677 648 230.

### EROSI

Bigarren eskuko umeendako Bebe Confort markako aulkia erosiko nuke (bikiendako). 943 76 09 17.

Borda erosiko nuke. 943 76 26 82.

Txanpon zaharrak erosiko nituzke. 639 822 790 (Pello).

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. 943 76 29 67.

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikientzat). 943 76 19 27.

### GALDU

Hilaren 4an Festina markako mutil-erloju horia galdu nuen Boluko frontoian. 943 76 57 77.

### AURKITU

Urrezko eskumuturrekoa topatu dut. Izena dauka. 943 76 50 28.

Urriaren 29an emakume-erlojua topatu nuen Burdiñaten. 943 76 00 20.

Betaurrekoak eta giltzak agertu dira Zurraderoko Olabe okindegian. 943 76 01 26.

### BESTELAKOAK

Botatzeko daukazun telebista hori gustura hartuko nuke edo merke erosiko. 943 77 91 25, Ianorduetan (Jon).

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

***HOTZGAILUEN LANGILEA***
Bilbo. 40412/4

***INGENIARIAK***
Bilbo. 40207/5

***KOMERTZIALA***
Bilbo. 40335/1

***INKESTATZAILEAK, 4***
Markina. 40369/2

***FRANTSES IRAKASLEA***
Ibai eskumaldea. 40689/3

***INGENIARIAK***
Gasteiz. 40750/4

***KOMERTZIALA***
Bidasoa Behea. 40873/3

***FRESARAKO LANGILEA***
Urola Garaia. 41012/2

***IRAKASLEA***
Ibai ezkerraldea. 41123/0

***IGELTSEROA***
Urola Kosta. 38008/3

***PUBLIZITATE BANATZAILEAK, 25***
Bidasoa Behea. 38411/3

***ELEKTRO-MAKANIKOA***
Bilbo. 40409/4

***LANBIDE HEZIKETA II***
Sondika. 40772/6

***FINANTZA PRODUKTUETARAKO KOMERTZIALAK, 2***
Debagoiena. 39462/1

***PRODUKZIO ARDURADUNAK, 2***
Araba. 37412/5

***PROGRAMATZAILE-DISEINATZAILEA***
Ibai eskumaldea. 38045/5

***SUKALDARI ARDURADUNA***
Urola Kosta. 38205/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.


# Aromaterapia ikastaroa



- Azaroaren 14tik abenduaren 14ra. Bi aukera:
  - Astelehen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara
  - Martitzen eta eguaztenetan, 15:00etatik 17:00etara
- Izena emateko azken eguna azaroaren 10a
- Bazkideek 5.000 pta. Besteek 6.000 pta.
- Informazio gehiagorako: 943 76 36 61

GAIAK
- Aromaterapiari buruzko informazio orokorra.
- Olio esentzia aztertu eta produktuak egin:
  - Masajeak emateko lozioak
  - Kremak
  - Ukenduak
  - Aurpegiko tratamenduak: maskarillak
  - Txanpuak
- Estresa eta aromaterapia eta emozioak.
- Erlajazioa eta musikoterapia.
- Reflexoterapia.

*Bakoitzak 5 produktu egin eta etxera eramateko aukera ere izango du.*

Jardun



**ILE APAINTZAILE**
lanetarako
emakumea behar da
943 76 22 48
Jean Louis David
Ibargarai 43, Bergara



**BELAR DENDA**
**salgai**
**Zurraderon**
**943 76 58 83**
**(09:30-13:00)**

# Bertso-trama: San Martzialgo erromeria bertsotan Jardun elkartearen eskutik

## Egaña, Lizaso, Iturriaga eta Ainhoa Agirreazaldegi izango dira bertsolariak

**Jardun elkarteak antolatu du bertso-trama. Gai orokor eta bakar baten inguruko bertso saioa da. Izen handiko lau bertsolarik San Martzialgo erromeriaz jardungo dute. Datorren zapatuan, hilak 18, izango da Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko.**



Bertso-trama iragartzeko egindako kartelean argazki-muntaia bitxiak daude.

Azken urteotan, ohikoa bihurtu da Jardunek San Martin jaiekin batera bertso jaialdia antolatzea. Aurten ere bertso saioa antolatu du, baina ez San Martin jaietan, datorren zapatuan, hilak 18, baizik. Bertso jaialdiaren data aldatu bada ere, berritasun handiena bertso saioak berak izango du; izan ere, orain arte antolatutakoak ohiko bertso jaialdiak izan dira. Datorren zapatukoa, aldiz, bertso-trama da.

### SAN MARTZIALGO ERROMERIA

Bertso-trama gai orokor eta bakar baten inguruko bertso saioa da. Azken boladan nahikoa zabaldu da bertso-trama, eta Jardunek urtero antolatu izan duen bertso saioarekin apurtzeko antolatu du.

San Martzialgo erromeria aukeratu du euskara elkarteak gai orokor gisa. Saioan Ainhoa Agirreazaldegi, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Unai Iturriaga bertsolariak arituko dira. Laurek, Karlos Aizpurua gai-jartzailearen aginduei jarraituz, San Martzial erromeriaren inguruko pasadizoak emango dituzte bertsotan.

Aipatutako bertsolariek herriko erromeria horren berri izateko aurre lana egin behar izan du Jardun-ek eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zerbitzuarekin (Lanku) batera, Bergarako hainbat pertsonarekin elkartu, eta antzina eta gaur egun San Martzial erromeria nola ospatzen den bildu dute hainbat grabaziotan. Ondoren, grabazioak bertsolariei eman dizkiete erromeriaren berri izan dezaten. Bertsolariek Iker Goenaga trikitilarien laguntza izango dute.

Horrez gain, ikus-entzuleak girotzeko, Zabalotegiko aretoan erromeriaren inguruko hainbat argazki egongo dira ikusgai. Gainera, agertokia tokia bera ere San Martzialgo erromeria balitz bezala girotuko da: mahai bat, gurdia, txingak... jarriko dira.

Sarrerak dagoeneko salgai daude Ariznoa, Pol-Pol, eta Kortazar tabernetan eta Jardunen.

Argazki erakusketa ere badago Avenida eta Kortazar tabernetan.

Agirrebeña
JATETXEA
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

COAR
Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.
BERGARA ☎ 943 76 58 86



Gaztetxea itxi zutela 7 urte dira, eta, hori gogoratuz, Gazte Asanbladak ekitaldiak antolatu ditu. ARTXIBOA

# Gaztetxea itxi zela gogoratzeko ekitaldiak

**Datorren eguaztenean**, hilak 15, zazpi urte beteko dira Gaztetxea itxi zutela. Hori kontuan izanda, Gazte Asanbladak hilaren 17 eta 18rako hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ekitaldien helburua, herritarrei taldean parte hartzeko gonbita egitea da, eta, bide batez, Asanbladaren gaur egungo egoeraren berri ematea.

Hilaren 17an, eguakitza, arratsaldeko 19:00etan, bilera informatiboa egingo dute San Martin plazan. Bileraren helburua, gaur egun Udalak utzitako Kartzela Zaharreko lokalaren egoeraren berri ematea da. Baita, antolatzeko asmoa duten ikastaro eta ekitaldiak aurkeztea ere. Helburu berarekin, fanzine bat banatuko da San Martin plazan.

**HAINBAT EKITALDI**

Bileraren ostean, 20:00etan, Gaztetxearen utzarazteraren inguruko bideo emanaldia egongo da, San Martin plazan hau ere.

Zapatuan, arratsaldeko 16:00etatik 19:00ak bitartean, Txapa Irratiak emisio antzekoa egingo du San Martin plazan. Bien bitartean, futbolinean, ping-pong-ean eta malabaretan aritzeko aukera egongo da. Ondoren, arratsaldeko 18:00etan, gaztain-jana egongo da eta 19:00etan kale antzerkia. Ostean, kalejira. Horrez guztiaz gain, eguakitz eta zapatuan gaztetxea zeneko eta gaur egungo Gazte Asanbladako argazkiak egongo dira ikusgai San Martin plazako arkupeetan.

## erreseinak



### Hamaika ipuin
***Juan Martin Elexpuru***
Ipuinak

Idazle bergararraren bigarren ipuinliburua dugu hau. Izenburuak dioen bezala, hamaika ipuinez osatuta dago. Gerra zibil garaian kokatutako istorioekin hasi eta gaur egun arte, gure gizartearen argazki berezi bat egiten jakin du Elexpuruk ipuin-bilduma honetan. Nostalgiaren samurtasuna eta ironiaren gazia elkartzen ditu ipuin bizi eta arinotan. Edozein kale bazterretan gerta litezkeen pasadizoak dira kale hizkuntza arinean kontatzen dizkigun hauek.

*- Elkarlanean. 139 or. 2.600 pta.*



### Fermin Muguruza
***Dub manifest***
Dance

Dub Manifest, horixe da Fermin Muguruza musikari irundarrak bere talde berrirako aukeratu duen izena. Taldean, Muguruza berarekin batera, Mikel Abrego bateria, Oskar Benas gitarrista, Hughes Svhecroun teklatua, Brice Toutoukpo baxua, Stefano Cecchi tronpeta, eta Francesco "Sandokan" Antonozzi tronboi jotzailea daude. Bestalde, Kashbad taldeko Sorkun-ek ahotsa jartzen du. Talde hau arduratuko da Brigadistak Sound Sistem berrirakurtzeaz. Muguruzak, Brigadistak gira aurkeztu zuenetik, aipatutako musikariekin dihardu. Disko berri hau eurekin grabatu du, horrela, Fermin Muguruza Dub Manifest talde gisa finkatuz.

*- Esan Ozenki Records. 1.995 pta.*

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
943 76 50 68

LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## denborapasa

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

LUMA

### Ezker eskuma

1. Amaitzen ez direnak. 2. Maiz, askotan. Röntgen. 3. Akabo. Gizakien osagai izpirituzkoa. 4. Bete. Igarobide. ...egin, goitik ari. 5. Istuak. Saila. 6. Kanpo. Behartsu, eskale. 7. Sastraka. Zakutoa. 8. Hegazti-mota. Zoro. Oinarrizko edari. 9. Neukake. Bat. Burdinola. 10. Emakume izena. Nafarroako udalerria.

### Goitik behera

1. Libertatea. 2. Maisuari dagokion trebetasun. 3. Zuhaitz-mota. Lokarria. 4. Gizon izena. Portu. Bokala. 5. Gironako ibilgailuetan. Iodoa. Kontsonantea. Bokala. Boroa. 6. Atabal jolea. 7. Gizonezkoaren ahotsa, tenore eta baxuaren artekoa. Azkenekoa. 8. Niri. Sarrera. Ogi, hitz elkarketan. 9. Bokala. Konposatu baten oinarrizko unitatea. 10. Zikinkeria. Fruta-mota.

*Soluzioa*

Ezker eskuin:
1. Amaigabeak. 2. Sarritan. R. 3. Kito. Arima. 4. Ase. Ibi. Ok. 5. Tuak. Atala. 6. At. Arlote. 7. Sasi. Aneka. 8. Uso. Ero. Ur. 9. Nuke. I. Ola. 10. Ana. Baztan.

Goitik behera:
1. Askatasuna. 2. Maisutasuna. 3. Artea. Soka. 4. Iro. Kai. E. 5. Gi. I. R. E. B. 6. Atabalaria. 7. Baritono. Z. 8. Eni. Ate. Ot. 9. A. Molekula. 10. Kraka. Aran.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



***Elkarrengandik oso gertu daude putzua eta eskailera hauek. Zein tokitan?***

Super BM

IFA

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!*



Aurreko aleko saria, **Ander Muguruza**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Anderri!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Elorriaga**
Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zertan oinarritzen da Metagrak jaso duen ISO 14001 agiria?
A- Kalitatean
B- Ingurumenean
C- Produkzioan

2. Noiz hasi zen Eustaquio Aguirreolea argazkilari profesional bezala lanean?
A- 1891n
B- 1905ean
C- 1933an

3. Zein gai aukeratu du Jardunek datorren zapatuko bertso-tramarako?
A- San Martinen martirioa
B- Bitorianatxo
C- San Martzialgo erromeria

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izen-deiturak: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**Saimaza**
**Kafe ehotua (naturala edo nahastua)**
**250 gr. + %10 DOAN**
**199 PTA!**
***Super BM**en beti eskaintzarik onenak!*

# Asteko programazioa

Goitb Goiena Telebista

**Bergaran 41 kanalean**

**EGUAKITZA 10**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Hamaika Magazin (errepika.)
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Astebete. Asteko gairik garrantzitsuenen errepasoa Marijo Degraciasekin.
**22:00:** Soinuz blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta
**22:30:** Gatza eta Berakatza.

**ZAPATUA 11**
**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

**DOMEKA 12**
**13:30:** Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

**ASTELEHENA 13**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Astebete
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Goienasport.
**22:00:** Gatza eta Berakatza.

**MARTITZENA 14**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Goienasport (errepika).
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Xeleberri. Zozketa berria martxan jarriko dute xelebre hauek. Zozketa mundiala, hori bai! Astebukaera bat Gatzagako Gaztainuzketa mendi etxeetan. Bi egun pasatzeko aukera zoragarria!
**22:00:** Gatza eta Berakatza

**EGUAZTENA15**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Xeleberri (errepika)
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Alkatearekin Berbetan. Aste honetan Eskoriatzako alkatea gondidatuko dugu hamabostean behineko saio honetara.
**22:00:** Gatza eta Berakatza.

**EGUENA 16**
**13:30:** Albiste aurrerapena.
**13:40:** Gatza eta Berakatza.
**13:55:** Alkatearekin berbetan
**20:00/20:30/21:00:** Berriak.
**21:30:** Hamaika Magazin. Argazki kamara zoragarri bat irabazteko aukera duzu hamaika kontu ikasteaz gain. Deitu 943 71 23 93 telefonora eta utzi zure datuak. 50.000 pezetatan baloratutako reflex argazki kamara zoragarri bat zurea izan daiteke.
**22:00:** Soinuz blai. Aste honetan Haika Aizpurua arituko zaigu martxa jartzen GOITBn.
**22:30:** Gatza eta Berakatza.

## kontuan hartzekoa

# Sariz beteta dator Xeleberri

***Xeleberri*** *Martitzena, 21:30*

Unai Iparragirre eta Iratxe Eguenek aurkeztutako Xeleberri saio zoro eta dibertigarriak sari potoloa banatuko du aurrerantzean.

Programako lehiaketako irabazleak Gatzagako Gaztañuzketako mendi-etxean asteburu bat pasatzeko aukera izango du. Ez da sari makala gero!

Zer egin behar den? Erraza da oso.

Astero, lehiaketa izango da Xeleberrin, parte hartu, bertoko telefonora deitu, 943 71 23 93, eta nork daki! Akaso zuk zeuk eskuratuko duzu saria! Gaztañuzketako mendi-etxeetan asteburua pasatzeko aukera, beraz!


Iratxe Eguen eta Unai Iparragirre.

## ikustekoak!



### Goienasport
Debagoieneko kirolak Gorka Etxaberekin.
*Astelehena, 21:30.*



### Soinuz blai
Musika kontuak Haika Aizpuruarekin.
*Eguena, 22:00.*



### Gatza eta Berakatza
Miren Maiztegirekin.
*Astelehenetik eguakitzera, 13:40.*




### Xeleberri
Hemendik aurrera, sariak banatuko dira!
*Martitzena, 21:30.*



# Seminarioko ikasleak, 1913 inguruan

Joan zen eguakitzean Eustaquio Aguirreolearen argazki erakusketa zabaldu zen Udaletxeko udalbatza aretoan eta domekara arte izango da ikusgai. Era berean, Aguirreoleari buruzko liburua kaleratu du Udalak, eta bertan bere bizitza eta lana jasotzen dira. Eustaquio Aguirreolea pintore eta argazkilaria izateaz gain, Arte eta Lanbide Eskolako irakaslea izan genuen eta erakusketarekin, berak urtetan herrian egindako lana omendu nahi izan da. Aguirreolea herriko lehen argazkilari profesionala izan zen eta 1891tik gerra zibilera bitartean, argazki denda izan zuen Barrenkaleko 19. zenbakian. Goiko argazkia 1913. urte ingurukoa da eta bertan Seminarioan ikasten ari zen gaztetxo talde bat ageri zaigu. Hauek dira bertan agertzen direnetako batzuk, ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran:** Jose Maria Gonzalez Bastida, Ramon Gonzalez Bastida, Claudio Larrañaga, Luis Mujika, Migel Camacho, ezezaguna, Emilio (dominikoa), Jose Mari Gonzalez, Jose Mari Alberdi, Jose Mari Lonbide, ezezaguna, Estanislao Ezenarro, "Pello", eta Julian Garate (Justo Garateren anaia).

**Bigarren ilaran:** Eusebio Camacho, ezezaguna, Jesus Sañudo, ezezaguna ("Perulde" baserrikoa), Txomin Amasorrain, "Uritxa", ezezaguna, ezezaguna, "Ilunbe", Paco Movilla, Aurelio Gonzalez, ezezaguna, ezezaguna, Graciano Garate eta Feliciano Susaeta.

**Hirugarren ilaran:** Juanito "Porru", Elias Garate, Jose Antonio Artetxe, Intxausti, ezezaguna, ezezaguna, Candido Sarasola, Santi Amutxastegi, ezezaguna, "Txarles" eta Roman Sañudo.

**Laugarren ilaran:** Jose Mari Arrese, Hipolito Mujika, ezezaguna eta Lazpiur. Gainerakoak ezezagunak dira.

*Argazkia: Bergarako Udal Agiritegia (B.U.A.) Eustaquio Aguirreolea fondoa.*
















GANTXEGI

MERTZERIA

943 76 00 79 Telesforo Aranzadi, 2

IRALA AUTOZERBITZUA

Orain, Olaberen profesionaltasunarekin




Irizar pasealekuko, 3 Telefonoa: 943 76 10 71

Astelehenetik zapatura: 07:30-13:30 eta 16:30-20:30 Domeketan: 08:00-14:00

OLABE | Lantokia: Amillaga kalea Tf. 943 76 72 28 | Matxiategi, 4. Tf. 943 76 57 99 | Zurradero, 2. Tf. 943 76 01 26

# Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



## hemen aurkituko duzu

**GRUPO Amuebladora Mondragonesa**

**a eme Interiores • a eme Sukaldeak • centro Hogar Muebles • Sofa leku**